




Aita Jose Antxietar (s. j.) dohatsua

(1534 - 1597)

*Aita Jose Antxietar
(s.j.) dohatsua*

(1534 - 1597)

Eugenio Arocena



AURKIBIDEA

<i>Aurkezpena (Nekane Larrañaga)</i>	3
<i>Aita Jose Ancheta (s.j.) dohatsua</i>	7

AURKEZPENA

Azpeitiko Udaleko kultura gaietarako zinegotzi bezala, ohore haundiz noa, hain ezagunak izan diren antxietatarren inguruko gai honetan sakontzera. 1997ko urte honetan ospatzen dira 400 urte Jose Antxieta, apostolu misiolaria, Jesusen Lagundikoa, idazle eta antzerki egilea hil zela. Beraz, azpeitiarrontzat ohore bat da munduan zehar pertsonaiua ezagun baten urtebetetze honetan parte hartzea, sinbolikoki bada ere.

Jose Antxieta apostolu misiolaria munduko semea dela esan dezakegu, ugariak izan baitita gizon honek ikasketetan eta misiolaritzan eramandako bizilekuak. Bere aita Azpeitiarra genuen, Urrestillan kokatzen den Antxieta etxeko semea. Aitaren ibiliek, Tenerifen suertatu zuten Joseren jaiolekua.

Azpeitiko artxibategiak arakatu dituen, Imanol Elias idazleak Antxietatarrei buruz idatzitako liburuau dioenez, Jose Antxieta munduan zehar ezaguna, Juan de Antxieta eta Maria Días de Clavijoren semea izan zen. Coimbran ikasketak egin ondoren, Jesusen Lagundian sartu zen hemezortzi urte zituela. Misiolari lanetan Brasilgo lurraldean ibilia da. Lurralde honetan, apostolutzat daukate Jose de Antxieta, kristau fedearren irakaskuntzari eta eritxetako gaixoei eskeini baitzion bere bizitza osoa. São Paulo hiriaren sortzailea da. 1617.urtean bere beatifikaziorako lehen pausuak ematen hasi ziren. 1736. Urtean, Clemente XII.ak Beneratzaile aitortu zuen eta Juan Paulo II Aita Santuak 1980.urteko ekainaren 22an Beato egin zuen.*

Jose Antxeta bere ikasketetan oso azkarra izan zen, Humanitateak, Artea eta Filosofia ikastera joan zen Coimbrara (Portugalen). 15 urte zituen, Coimbrako Arteen Ikastetxe Errealean sartu zenean. Han bi urte igaro ondoren, San Francisco Javier'ek bere osabari idatzitako eskutitz bat iritxi zen bere eskuetara, Ekialde Urruneko bere misiolari gertakizunak kontatzen zituena. Honek erakarrita edo, Jesuiten Lagundian sartzeko eskuera egin zuen.

Jesuita ikasketek, penitentzian eta oinordekoei laguntza emateko eginbeharrok zorroztasunez eskatzen zizkioten, baina bizkar hezurreko gaixotasun batek oztopo haundiak ematen zizkion bere proiektua aurrera eramateko, ugariak izaten baitziren egiten zituen baraualdiak eta ejerzizioak. Medikuek gaixotasun honi aurre egiteko Brasileko aideek on egingo ziotela pentsatu eta Jesusen Algundiko zuzendariek Brasileko misioetara destinatu zuten Jose Antxeta.

Bi hilabete luze itsasoz egin ondoren iritsi zen Brasilera. Lurralde hauetan bertako jendeak, gertaera tamalgarri ugari izan zituzten lur hauetara iritsitako konkistatzaleekin. Sarritan bertako emakume eta haurrak konkistatzeileen era guzietako zerbitzariak bihurtzen ziren. Jesuitak iritsi zirenean, bizimodu lasaiagoa hasi zen. Antxietaren ebangelizatze lana Sao Paulo herrian hasi zen. Jose Antxietak bere bizitzako 63 urtetatik 44 ebangelizatze lanetara eskeini zituen. Berak lur hauetan egindako lana garrantzitsua izan zen.

APOSTOLUAREN MISERIAK

Apostoluaren bizilekua txabola txiki bat zen, eskola, eta 20 bat jesuita eta indiarren bizilekua zena aldi berean. Suaren berotasunez, ehiza edo belarrak janez bizi ziren. Jesuitek indiar hauei lanbide ezberdinak irakasten zizkieten: artzantza, igeltzaritza, arotziana, Antxietak alpargatagintza ere irakasten zuen. Medikuntza naturista ere praktikatzen zuen Antxietak, indiar gaixoei sendagaiak eta jatorduak ipiniaz.

Indiarrekin izandako harreman hauetaz, poesia ugari idatzi zituen Antxietak.

APOSTOLUAREN GOZAMENA

Brasileko indiar kultura berri batekin topatu zenea, Antxietak ez zuen zalantzarak izan bertako kulturan barneratzeko. Berak aipatzen duen bezala, Brasileko indiarrekin lortu zuen biziota integratua izan zen bere gozamenik haundiiena. Antxietak bertako kultura ezagutzen iritsi zenez, eta humanitateetan nahiz hizkuntzetan egoki jantzia zegoenez - tupi (hizkuntza indiarra), portugesa, gaztelera eta latina hitzegiten zituen-, europarren eta bertakoentzako komunikaziozko baliozko pertsona batetan bihurtu zen.

Horrela, hainbat dokumentu, eskutitz, poesia eta antzerki lanen idazlea izan genuen. Pertsonai ezagunekin idazten zen Antxieta, Loyolako Inaziorekin, Portugaleko agintariekin, Felipe II Espainiako Erregearekin e.a. Antxietak indiarren biziota gertutik ezagutzen iritsi zenez, beronen deskribapenak interes

haundia sortu zuten pertsonaia hauentzako. Brasileko indioen ikerlaria izan zela esan dezakegu, antropologo eta linguista lanak eginez. Tupi hizkuntzaren normalizazio lanetan ere pausu garrantzitsuak eman zituen.

Antxietaren antzerki lanen gaia, Brasilgo indigenen gizarte bizitzari buruzkoa zen, idazkera berezi batekin; bertsotan idatzi zituen bere antzerki lanak. Garai hartako antzerki lanak eta ikasketak latinez, hizkuntza kultoan, egin behar zirela zioten Jesusen Lagundiko aginduek, baina Antxietak, Erronkako eta Brasilgo agintarien aurrean, ahalegin ugari egin zituen bertako hizkuntzan egin ahal izatera iristeko. Antxieta indiarren bizitza moduarekin benetan konprometitu zen, beren era jantzi eta ibiltzen zen eta literaturarako hizkuntza ere bertako hizkuntza erabili zuen, tupia.

Antzerki lanezgain, Antxietak poesia ere idatzi zuen. Poesigintzan lan ugari idatzi zituen, 17.000 berso baino gehiago. Poesigintzan landu zituen guiaok batez ere erligiosoak izan ziren, baita jesuitek lur haietan egiten zituzten lanei buruzkoak ere. Tupiez idatzitako hainbat eta hainbat olerki helburu pedagogikoa eta katekistarekin idatzi zituen.

APOSTOLUAREN ESAERAK

Izadiaren indarrekin eta justiziazko printzipioekin lotura duten hainbat esaera ezagutzen dira Antxietarenak. Antxietak, bertako indiarrei, eguraldiaren gorabeheriei beldurra kentzen irakatsi zien, baita lurra landuaz janari aberatsak eskuratzeko ere, ordurarekin bizi ziren herriekin eragin haundia izan zuen

aurkikuntza honek. Bertako animaliak eta egaztiak ere asko ezagutzera iritsi zen, beren jokabideak ere gizonaren probetxura erabiltzeko moduan ipiniaz. Antxietak azkenik, indiarren gizarte bizitzan justiziazko printzipioak ezartzen ere egin zuen lan, eztabaida eta arazo asko zirenean Antxietari deitzen zioten konponbidea topatzeko. Indianrek sarritan jotzen zuten Antxietarengana bidairen bat edo hasi behar zutenean; beronen bedeinkapenak balio haundia zuen beraiengan.

Antxietak, izen haundia hartu zuen beraz Brasilen. Bertako kultura eta kultura europarraren bategitearen azia ipini zuela esan dezakegu. Bere bizitzako lan guzti honengatik Antxeta oso ezaguna bihurtu zen mundu osoan, Tenerifeko bere jaioterrian, auzo batek bere izena darama, Brasilen Sao Paulo eta beste hainbat hiriren sortzaile izan zen. Brasileko independentziaren alde egindako lanagatik, brasileko eleizaren eta nazioaren sortzaile eta patroitzat daukate.

Brasilen egun bat izendatua du gizon honek, eta egun horretan Antxeta zenari buruzko idazlan bat idatzi ohi dute ikastetxeetako ikasleek urtero. Guk ere, pertsonaia honi buruzko liburu hau argitaratu ondoren, irrati lehiaketa bat egingo dugu ikastetxeetako ikasleen artean, gizon berezi honi buruz zerbait gehiago ezagutzera iritsi daitezten gure herriko gazteak.

Nekane Larrañaga Aizpuru
KULTURA ZINEGOTZIA
Azpeitia, 1997ko Iraila

(*) ELIAS IMANOL: «Juan de Anchieta. Apuntes historicos» Edic. Caja de Ahorros Provincial de Guipuzcoa. 1981. 49-50 orr:

AITA JOSE ANTXIETA (S. J.) DOHATSUA

Euskaldun txori kantoreak aspaldi kantu zahar hau aidean ipini zuenetik munduko txoko izkutuenetako euskaldunen belarrietan sartu eta mendez mende gozatu da.

Eman da zabal zazu
munduan frutua
adoratzen zaitugu
arbola sandua

Arbola zahar honen hazia munduan zehar banatua izan da eta, ondorioz, hainbat fruitu aipagarri eskaini izan du; denak aipatzea ezinezkoa izanik, beraietako bat aukeratu dut: aita Jose Antxieta Dohatsua.

Aita Jose Antxieta Dohatsuaren heriotzaren laugarren mendeurrena 1997ko ekainaren 9an ospatuko da, 1597ko ekainaren 9an hil baitzen Brasilgo RERITIBA izeneko herriskan (gaur egun Antxieta hiria bezala ezagutzen da). 1534ko martxoaren 19an Tenerifeko San Cristobal de la Lagunan jaio zen, Juan Lopez Antxieta eta Mencia Diaz de Clavijo y Llarenaren semea zen Jose Antxieta Dohatsua.

Jose Antxieta gizon Unibertsal eta Dohatsuak gu guztiok poztuko gaituen bizitza izan zuen; honela: 1.- leinuz euskalduna zen, 2.- sor-kuntzaz, berriz, kanariarra, 3.- heziketaz portuguesa, 4.- apostolutzaz brasildarra, 5.- antzerki sormenez unibertsala. Bost izate desberdin horiek oinarri hartuz Jose Antxietaren izatea hobeto ezagutuko dugu.

LEINUZ EUSKALDUNA

Antxietarrak Azpeitiko herrian sendo errtuak zeuden hain garrantzitsua izan zen XVI. mendean: bi etxe nagusitan finkatzen ziren, bata Urrestilan eta bestea Azpeitiako San Sebastian de Soreasu elizaren inguruan dagoena, bietan zaharrena Urrestilako jauregia iza-nik.

Jose Antxieta dohatsuaren Juan Antxieta aita Urrestilan jaioa zen. 1540ko apirilaren 23an Francisco Alzola lizentziatuak (hau ere azpeitiarra) Osunako artxibategiko agiri batean honela dio:

*Juan Antxieta kapitainak adierazten du Lope
Antxieta eta Maria de Ayalaren semea dala.... (agiri
berean) 40urte dituela (Itzulpena)*

Horrela, bada, uste da gure sainduaren aita Juan Antxieta 1500 urte inguruan jaio zela Urrestila auzoan.

Aipamen labur bat eginez, egoki iruditzen zait Euskal Herriko Erdi Aroak bizi zuen giroa aipatzea, horrela hobeto ulertuko baitugu aipatzen ari garen pertsonaia.

Erdi Aroak izan zuen sasoi bat, non gaur egungo Azpeitia eta Azkoitia, Iraurgi bailara bezala ezagutzen ziren, bainan bai Azpeitia eta Azkoitia hiriguneak sortzen ari ziren heinean erregeek “Carta Puebla”k (1) eskaini zizkieten: Fernando IV.ak, 1310eko otsailaren 20an Salvatierra de Iraurgi izena eman zion ondoren Azpeitia izango zenari eta hastapen baimena Gasteizko Foruaren menpe jarri. 1324ko urtarrilaren 4ean Alfonso XI.ak San Martin de Iraurgiri Carta Puebla eman zion gero Azkoitia izango zenari eta Arrasateko Foruaren menpe jarri.

XV. mende erdialdera (Azpeitiko Udaleko artxiboko zenbait agirik diotenaren arabera) lehen Antxietak honela azaltzen dira:

.....e Martin Perez de Alzaga e Martin Perez de Mendizabal y Ochoa Ortiz Antxieta e Martin Ibañez de Recalde e Juan Garcia Antxieta.....Dixerón al dho concejo e alcaldes e jurados e omen buenos que ellos con todo sus bienes quantos avian e podian que en lo adelante querian entra vezinos e mantener vezindad en la dha villa de Salvatierra para agora e para syempre jamas.....(2)

Agiri honek erakusten du lchenbiziko Antxietarrek ondasunak zitzutela eta gipuzkoar gehienak bezala zaldunen (3) tratamendua hartzen zutela.

1435 urtean Azpeitiako bi Ahaide nagusien (*Loiola eta Emparan*) arteko pakeunea zela eta, bi alderdiek sinatu zuten agirian, Antxieta sendia ondoko eran aupatzen zen:

Otros y por quanto muchas veces por experiencia que amistido que causa e ocasyon de la divisyon e discordia de entre los dhos solares ha sido la casa de Antxieta los quales se atreven queriendo trabajar porque entre nosotros non aya concordia e en especial al presente Lope Antxieta et Martin Gonzalez su hermano e Martin Martinez Antxieta su tyo estan dibyisos de los dhos solares de Loyola e Emparan.....(4)

Agiri honek adierazten du Antxieta sendia garaiko gizartean zerbait bazela, beraien ondasunak garrantzizkoak zirela eta, ondasun

hauen etekinak onak izanik, baiilarako jauntxoen mailara aupatuak zirela. Antxietarren ondasunak errotak, zelaiak, baserriak, oholak eta abar ziren.

Ahaide nagusiek (**5**) Gipuzkoan eta beste lurralteetan sortzen zuten egoera ez zen egonkorra -giro dardartsua zen- eta haien alderdi-keriak sortutako gatazkek Gipuzkoa osoa hankaz gora jartzen zuten. Boterearen handinahiak eta bestea baino indartsuago izan nahiaren gria-nak berauen ahaidetasunez lotura zuten guztiak burrukaren zurrubilo-ra eramatzen zituzten.

Ahaide nagusiek zeukaten egoera pribilegiatuari iraunkortasuna emateko, alderdi bakoitzak laguntzaileak aurkitzen zituen: gizalegetik kanpo bizi ziren bidelapurak, abere lapurak eta abar.

Ahaide nagusiek honelako lapurrei ctekin handia ateratzen zieten, gerla garaian gatazken zurrubiloan partaide aktiboak ziren eta bake garaian lapurretari ekiten zioten, bai baserri, abere zelai eta mahastietan lapurtuz, bai bidelariei eraso eginez, eta lapurketen eteki-nen zati bat, babesaren truke, Ahaide nagusiei ematen zieten.

Ahaide nagusiek Gipuzkoara zetozenean gizarte aldaketek eraginda (poliki-poliki hiriguneen sortzeak, agintari berrien hautaketak...), beraien boterearen galtzea ikusten zuten eta hori ezin zuten onartu.

Ahaide nagusien gehiegikeriak burrukatzeko eta horien akolito-ak bere lekuaren jartzeko herriek elkarturik Ermandadeak (**6**) sortu zituzten. Lehenengo Ermandadea sortu zenetik, azkeneraino, zenbait mende pasatu ziren, bainan poliki- poliki Ermandadearen indarra handitzen joan zen eta, gainera, elkartea hauek erregearen babesare ere lortu zuten. XVI. mendearen erdialdera Gaztelako erregea izan zen Enrique IVak gatazka amaitu zedin Ahaide nagusien gazteluetako dorreak desegite-

ko agindua eman zuen. Agindu horrek gatazkarekin amaitu ez bazuen ere, baretu egin zuen egoera.

1520 urte inguruan Gipuzkoa bitan banatuta zegoen, eta zatiketaren arrazoia Gipuzkoara ctorritako Gutierrez Quijada korrejidorea izan zen. Gaztelako erregeak izendatu zuen Foruen eskubideak kontuan izan gabe eta Gipuzkoako Herrien Batzarrak, borondatez ala indarrez Jurrarde honetatik kanporatzea erabaki zuen. Korregidorea, bere kabuz, Frantziara ihesi joan zen. Hala ere, zenbait herrik (Donostia, Errenteria, Hondarribi eta abar) erregearen aginduari onespina eman zioten eta herrien batasuna hautsi egin zen. Bigarren korregidorea, Cristobal Vazquez de Acuña, aurreko lizentziatura ordezkatzera etorri zen eta izendapen horrek arazoa areagotu eta taldekeria gehiago mikaztu zuen. Egunak pasa heinean gauzak okerrerantz joan ziren agintari arrotzak Gipuzkoa lurraldetik irten nahi ez zuelako. Gipuzkoa matxinatu zenean lizentziatura Donostiako hirian babestu zen. Beste aldeko ermandadeek Donostiari ondokoa esan zioten: “Acuña litzentziatura hiritik kanporatu edo Donostia suntsituko dugu”.

Egoera nahastu horretan Acuña korrejidoreak herrietako ermandadeen aurka sententzia bat argitaratu zuen eta sententzia horretan ere bi Antxieta agertzen dira, bata Martin Sanchez Antxieta tolosarra eta bestea Juan Lopez Antxieta eta azken hau errebolvari eta gizon gaiztotzat hartuz, lehen mailako heriotza zigorra ematen dio:

..... *Pronuncio y declaro el dicho Juan Fernandez de Illecas, actor acusante haber probado bien e cumplidamente su intención en lo contenido en su quexa e acusacion por caso y como caso público y notorio: e que les dichos bachiller Olano e Juan Lopez Antxieta e licenciado Aguinaga han sido e son contumaces y rebeldes por no haber*

parecido ni querido parecer ante mi, a salvarse de los dichos delitos tan feos en pena de los cuales mandado, sin embargo de las penas de muerte e perdimiento de bienes que por mi les fueron puestas..... (7)

Sententzia horrek lehenagoko giro nahasia lehertu zuen eta 1521eko urtarriaren 10ean Hernanin herrietako ordezkariak batzartu ziren hurrengo erabakia hartuz: epe jakin eta laburrean donostiarrek korrejidorea Gipuzkoatik kanpora zezatela eta agindu honen ez bete- tzeak Donostia eta aldeko ziren herrien aurkako eraso bortitzak ekarriko zituela. Ermandadeek 7.000 gizon mobilizatu zituzten. Bi alderdienean artean gatazka gogorrak izan ziren eta ondorioak mingarriak gertatu ziren. Egoera nahasi horri irtenbidea aurkitzeko, Carlos V.ak Najarako konteari agindu zion Gipuzkoa bakeratzca. Momentu hartan Nafarroako lurraldea frantzesak bertan sartzeko bildurrez larri zegoen eta Albertek berriro Nafarroako agintea lor ez zezan Enperadoreari ezinbestekoa zitzaion Gipuzkoaren laguntza. Beraz Gipuzkoak pake bidean sartua behar zuen. Horretarako Najarako kondeak gizon talde bat bidali zuen, auen artean San Inazio Loiolakoa aurkitzen zelarik. Azkenik, Gipuzkoa pakeratu zuten. Acuña korrejidorea Gipuzkoatik kanporatu eta honek emandako sententziak indarrik gabe uzteko agindu berri bat argitaratu zuen:

..... Por quanto el procedimiento, sentencias y declaraciones que el dicho licenciado Cristobal Vazquez de Acuña hizo y pronunció contra la dicha junta y procuradores, escuderos Hijosdalgos y personas particulares de la consortes: fueron nulas y de ningun efecto, por no guardarse en ellas la forma y orden judicial, segun las ley es y ordenanzas reales de los reinos de Castilla y por otras causas dellas

resultantes declarandoles por tales, ordeno y mando que los dichos procedimientos, autos, edictos, sentencias sean habidas y tenidas por nulos casos y de ningun valor ni efecto ni sean puestos directo ni indirectamente a ejecución agora ni en tiempo alguno antes se rasquen o quemen de manera que no parezcan en tiempo alguno..... (8)

Ikusten denez, sententzia horretan agertzen den Antxietak eta Kanarietakoak izen berdinak dituzte, bainan Antxieta bera ote dira? Galdera honi erantzuna emateko bi iturritan murgilduko gara: F. Mateos S.I. (9) ikerlariaren arabera bi Antxietak bat dira. Bere ustez, Gipuzkoako gatazkak amaitu ondorengo giro txarrak eraginda gure Antxietak Gipuzkoatik urrutiratu beharra izan zuen, azkencan bere kabia Tenerifen aurkituz. Leon Lopategi S.I (10) ikerlariak dioenez, bi Antxieta hauek ezin ziren pertsona bera izan; honen arrazonamendua-en arabera, Sainduaren aita, 28 urte zituelarik, Carlos V.a enperadorearen notaria zen eta Tenerifen sortu zen eztabaidea zela eta, enperadoreak Francisco de Alzola lizentziatuaren (hau ere Azpeitiarra eta Antxietaren lagun mina) laguntzaile bidali zuen bertara. Hau 1528 urte inguruau gertatu zen. Arazoa gainditu ondoren gainekoak gortera itzuli ziren bitartean, gure Antxieta maitemindua Tenerifen gelditu zen.

Jose Dohatsuaren aita tenerifetarrek Juan Antxieta “el viejo” deituraz ezagutzen zuten. Nahiz eta gaur egun Juan Antxieta nor eta non-goa zen argitua dagoen, han hemenka argitalpenak aurki daitezke Antxieta hau Tenerife berkonkistatu zutenetako bat zela diotenak.

Adierazpen honen iturria 1604 urte inguruau argitaratutako “*Antigüedades de las Islas Afortunadas de la Gran Canaria y Aparecimiento de la Ymagen de Candelaria*” obran dago. XI. kantuau, besteren artean, izen hauek irakur daitezke:

El capitán hernando de Escalante, hizo reseña y lista, que fue aquesta: Francisco de Alcaduz, Juan de Rosa, Alonso Villanueva, Juan Antxieta, Lope Antxieta.....

Dakiguna da 1526 urte arteraino Antxietarrik ez zegoela Tenerifeko lurrealdean finkaturik. Aipatutako okerra etor daiteke Errege Katolikoen gortean bi Antxieta egotetik eta Gaztelako Errekonkistan biak partaide izatetik. 1493 urtean Juan Antxieta Granadako katedraleko kaperako irakaslea izendatu zuten. Urte berean Pedro Antxieta Fernando erregearen “mozo de espuelas” izendatu zuten (hamarkada bat egin zuen kargu horretan). Pentsatzen da bi pertsonalitate hauek guk jarraitu nahi dugun Antxietari kondairan itzala egin diotela eta honek hainbat idazle errura eraman dituela.

Atal honi amaiera emateko esan behar dut, sententzian Juan Lopez Antxietaren “bachiller” aipamenak gaztea dela esan nahi duela. Batxilerra deitura zaldungai edo ikasketak egiten ari zirenei ematen zieten. Sententziko Antxieta gaztea izango zela ez dago dudarik, Sainduaren aita izanik 21 urte lituzkeelarik. Honela bi ikerlarien lanak aztertu ondoren, ezjakintasun arrasto bat datorkit burura. 1521 urtean Gipuzkoako gatazkak amaitu ziren eta, bestalde, 1528 urtean Antxieta bat Gaztelako gortean eskribau zen. Bi data hauek 7 urteko iluntasunezko tunelaren bi ertzeetan daude. Iluntasun honi ikertzaileren batek argitasuna emango dion itxaropenean geldituko gara.

SORKUNTZAZ KANARIARRA

Azken ikerketaetan oinarrituz badakigu Juan Antxieta eta bere emaztea Mencia Diaz de Clavijo, Tenerifeko San Cristoval de la Lagunan 1530 urtean ezkondu zirela. Mencia Diaz de Clavijo, adinez, Antxietaren parekoa zen. Emakume honen aita-aitonak judu kristautu berriak ziren eta bestalde Tenerifen asentatutako lehenetariko sendia.

Mencia Diaz de Clavijoren aita-amak hauek ziren: Sebastian de Llerena eta Ana Martin de Castillejos. Aitaren aldekoa sona handiko sendia zen; Menciaren aiton-amonak Alonso Gonzalez Bermudo eta Mencia Sanchez ziren, Extremadurako Llerena herriskakoak, biak juduak kristautasunera itzuli berriak eta aitonaren aitaren anaia Fernando Llerena zen Tenerifeko berkonkistan partaidetza zuzena izan zuenetariko bat.

Mencia Diazen lehen ezkontza Pedro Nuñez abogatuarekin izan zen. Pedro eta Gregoria seme-alabak izan zituzten. 1529 urtean Pedro Nuñez hil zen eta Mencia Diaz urtebeteko alarguntzaren ondoren, 1530 urtean, Juan Antxietarekin ezkondu zen. Ezkontza honetatik etorri ziren bederatzi seme-alaben izenak hauek dira:

Teresa de Zelaiaran, Ana Martin Antxieta, Josepe Antxieta, Juan Antxieta, Gaspar Antxieta, Baltasar Antxieta, Melchor Antxieta, Beatriz Antxieta, Cristoval Antxieta.

Bikote honen seme-alaben zerrendan ikus dezakegu amaren aldeko amonaren izen-abizenak bigarren alabak (Ana Martin Antxietak) hartu zuela eta pentsa daiteke lehenbiziko alabak ere bere aitaren aldeko amonaren izen-abizenak hartuko zituela (Teresa Zelaiaran jaiotzez elbarria zen). Antxietaren bigarren abizena

Pe: Josephi de Anchieta, S.J.



De Gestis Mendi de Saa

**OBRAS
COMPLETAS] VOLUME**

Introdução, Versão e Notas
Pe. ARMANDO CARDOSO, S.J.

Edições
Loyola

Zelaiaran zela askok defendatzen dute. Datu guzti horiekin esan daiteke Antxietaren ama Teresa de Zelaiaran (Oñatz bailarako Zelaiaran baserriko alaba) izan zitekeela .

Bestalde, idatzi askotan irakurriko dugu Juan Antxietari kapitain titulua ematen ziotela. Horrek ez du inola ere adierazten militarra zenik, garai hartan eta Kanarietako lurraldean eguneko bizitza eta bizitza militarra nahastuak baitzeuden eta administrazioko partaide zirenak ugarteko milizietako partaide ere izaten baitziren. Ugarteko agintariek izendatzen zitzuten milizietako agintariak eta bide honetatik istoriko zitzaison gure Juan Antxietari kapitain tituloa.

Guri dagokigun gaia hirugarren semean dago, Jose Antxieta, 1534ko martxoaren 19an Cristoval de la Lagunako (**11**) Adelantado enparantzako 10. zenbakiko etxearen jaioa. Bataioa Lagunako beheko hiriko Erremedio elizan izan zen, eta bertan dagoen bataio fedearen honela agertzen da:

Jusupe, hijo de Joan de ancheta y de su muger, fué bautizado en VII del mes de abril por Juan Gutierrez, vicario. fueron sus padrinos Domingo Riso y don Alonso.

Jose Antxietaren haurtzaroaz ezer gutxi dakigu. Pentsatzen da lehen ikasketak Santo Domingo monastegian egin zituela. Monastegi hau Antxietarren etxetik hurbil zegoen. Antxieta sendiak monastegi honekin harreman adierazgarriak zituen. Hala, Juan Antxieta “El Viejo” 1553ko otsailaren 18an hil zenean Monastegi honetan hilobiratu zuten.

Santo Domingo ikastetxean lehen ikastaro luzeak egin zituen. Zazpi kurtso osatu zituen eta bertan idazten eta irakurtzen ez ezik, lati-

na ere ondo menperatzen ikasi zuen. Idazten zekien frogak “protoko-loetan” agertzen dira. Juan Antxietak bere bulegoan zenbaitetan proto-koletako testigutza egiteko idazten eta irakurtzen jakin beharra zegoen eta mota honetako testigu gehiegirik ez zegoenez, bere seme Josez baliatzen zen, eta horregatik agertzen da aipatutako protokolo hauetan Joseren izena.

Lagunan haurtzaroak Jose Antxietari 14 urteraino iraun zion, hurrengo pausoa Coimbrara eman baitzuen.

HEZIKETAZ PORTUGUESA

Askok eta askok egiten duten galdera hau da: “Zergatik joan zen Jose Antxieta goi-maiłako Humanidade ikasketak egitera Portugalgo Coimbrara? (12) Amaren aldetik Judutarra izan zirelako? Arrazonamendu honek du indar gehien. Sasoi hartan, hau da, XVI. mendean, zenbait eskolatan ikasketak egiteko odol garbikoa (13) izatea ezinbes-tekoa zen.

1548ko irailean Jose Antxietak Coimbrarako bidaia bere anaideko eta familiako anaia zaharrena zen Pedro Nuñezekin egin zuen; hau ere Coimbrako Unibertsitatera apaiz ikasketak egitera zihoan.

Jose Antxietaren ikasketa egonaldiaren lehen bi urteak oso eztabaidatsuak izan ziren, irakaslegoa bitan banatua baitzegoen. Alde batean Bordeleko ikastetxean ikasketak egindako irakasleak zeuden eta beste aldean, berriz, Pariseko eskolan ikasitakoak.

Jose Antxietak ez zituen ikasketak Coimbrako Unibertsitatean egin berari itsasia zegoen “Colegio Real das Artes”eko egoitzan baizik, eta esaten den lez gure Jose Antxietak ikasle bezala sona handia hartu

zuen, bereiziki Humanitate alorrean. Bere ikasle lagunak eta gerora bi pertsonalitate izango ziren Jorge Ataide eta Pedro Leitãok honela zioten Antxietari buruz:

“Um dos melhores estudantes de primeira classe”

Esaten denez, idatziak eta errexitazioak -prosa eta bertsoak- erraztasun osoz egiten zituen eta dohain honengaitik eta jaiotako uhar-tearekin lotuz Coimbrako kanario deitzen zioten.

Jose Antxietaren ikasle garaiko datu gehiagorik ez dago, baina dakiguna da hiru urteko ikasketak egin ondoren, Jesusen Konpainian sartzeko eskakizuna egin eta nobizio onartu zutela.

Jose Antxieta Jesusen Konpainian 1551 urteko maiatzaren lea sartu zela esaten da. Joseren bizkar okerdura zela eta, oinazeen ziztadek astintzen zuten eta honek eguneroko ekintzak egiteko ahalmena murrizten zion. Gainera, eritasunaren itzalak pentsamendu ilunetara eramatzen zuen; horrela Jesusen Konpainiatik bidaliko zuten beldur zen eta Jose Antxietaren idatzietan ikusten den bezala, Brasilerako bidaia-ren arrazoietako bat gaixotasuna izan zen.

Jose Antxietak joan behar zuen partida Brasilera jesuitak joango ziren hirugarrengoa txanda zen eta hirugarren hau Lisboatik atera zen 1553ko maiatzaren 8an. Partida honetan zihoazen jesuitak ondokoak ziren: jesuitak, Blas Lorenzo eta Ambrosio Pires; ikasle anaiak, Antonio Blazquez, Juan Gonçalves, Gregorio Serrao eta Jose Antxieta; eta partida honen buru, Luis de Grâ nagusia zihoan.

Bidaian abiatzeko garaian Jose Antxietak berri txar bat jaso zuen: 1553ko maiatzaren 2an aitaren heriotzaren notizia iritxi zitzaison. Aitaren heriotza otsailaren 18an gertatu zen.

Bidaia honen zergarietako bat, aurrez aipatu bezala, gaixotasuna izan zen. Brasildik zetozen berrick ziotenez, Josek zuen gaixotasunarentzat bertako klima ezinhobea zen. Hala ere, dakiguna da itsasoratzek ez diela denei on egiten eta gutxiago garai hartako ontzietai nahiz bidaian aurki zitzaketen ekaitzen astinduak zirela eta. Baino gizon honek fedea edo ez dakigu zerik cragin zuen berari itsasoko haizeak on egitea, bere bidai lagunek ziotenaren arabera bederen, ondoko idatzi baitzuten:

*“.... .embarcado o irmão Jose para estas partes
entrando no mar; sentiu logo em sua disposição,
mais alento e melhoria, como natural de ilha”*

Itsasoko haize finak Jose Dohatsuaren gorputza estaliz gaixotasunaren oinazeak ixilarazi zituela dirudi.

APOSTOLUTZAZ BRASILDARRA

Antxietaren ailegarea.

Jose Antxicta ikaslea, 1553ko uztailaren 13an Brasilera (**14**) iritxi eta gerora 40 urte luzeko misiolaritza izango zenari ekin zion, 1597ko ekainaren 9an hil baitzen Reritiba herrixkan (gaur egun Antxietar bezala ezagutzen den herria) .

1553 urteko uztailaren 13an Brasilgo Bahiara (**15**) iritsi zen expedizioa 260 pertsonak osatzen zuten, hiru karabela eta itsasontzi batez baliatu zirelarik bidaia aurrera eramateko. Espedizio honetan gobernadore berria ere bazetorren. Jesuita iritxi berriak Bahian Vicente Rodriguez anaiak errezipitu eta jesuiten egoitzara bildu zituen.

Jose Antxieta ikasleari itsas bidaiaok osasunean on egin arren, ez zion gorputzeko mina guztiz kendu, oraindik ere astintzen baitzion, bainan hala eta guztiz ere lanari ekin zion, Bahian jesuitek zuten ikastetxeen irakaskuntzan lagunduz eta zuen denbora librean bertako indiarekin harremanak sortzen saiatuz.

Jose Antxieta eta bere lagunak Bahian zeudela, lau hilabete igaro ondoren M. Nóbregaren deialdia jaso zuten; hegoaldera abiatzeko eskatzen zien, hain zuzen ere, bera misiolaritzan zebilen lekura. M. Nóbregak argi zeukan itsas eritzeko indiarrauk kristautzea zaila zela, inguratzenean ziren etorkinen portaera txarrak kutsatzen baitzituen. M. Nóbrega Piratininga deituriko bailara batetan zegoen, bailara hori itsas ertzetik hamar legoetara dago. Itsasoa eta Piratininga artean “Serra da Costa” deituriko goi lautada dago. Piratininga bailara zenbait ibaik inguratzenean dute, bereziki Paraná eta Plata ibaietik. Bailara horretan bizi ziren indiarrauk tupinanbak eta tupinikinak ziren eta basoan barrurago joanez beste tribu bat aurkitzen zen, tamoio izenekoa. Aipatutako lehenengo bi tribu horien artean noiznahi gatazkak izaten ziren eta, nahiz alde batekoek nahiz bestekoek etsaiak bahitzen zituzten eta hurrengo egunean zeremonia handi batean sakrifikatu eta jaten zituzten.

Indiarrauk kristautzeko asmoz, aita M. Nóbrega Piratiningo bailarara joan zen eta leku hura ikusi zuenean bere nahiak asetzeko leku ezinhobea iruditu zitzaison. Lchen etxea eraikitzeko leku apropos bat izendatu zuen. Leku hau 30 metrotako lepoko bat zen Tieté eta Tamanduathý ibaien artean. Leku oso egokia etsaien erasoi erantzuteko.

M. Nóbregaren deialdiari erantzunez hirugarren Jesuita espedizioko partaide guztiak batera untziratuz itsasoz Hegaoaldera abiatu ziren eta hauen artean zegoen, nola ez, Jose Antxieta ikaslea. Jesuita guztiak ez ziren Hegaoalderaino iritxi, atsedena hartzen zuten portuetan

batzuk gelditzen baitziren, atseden horietako batean Jose Antxieta eta bere bi lagun Porto Seguran lehorreratu ziren. Portu horretan Jose Antxietak aukera izan zuen Juan de Azpilcueta (**17**) euskaldun jesuita ezagutzeko. Jesuita hoti M. Nóbregaren lehen espedizioan eterria zen eta hizkuntzalari fama eta izana ere bazuen. Tupiera ondo ezagutzen zuen, eta hara lekuokoek zer zioten horri buruz:

“Porque o Tupi se assemelhava ao seu Vasconço natal”

Antxieta ikasbidean

1554ko urtarrilaren 25ean, Jose Antxieta eta beste hamairuren bat jesuita, indiar buruzagien semetxoak lagun zituztela, Piratiningara iritxi ziren. Talde hau irixteko, Tiberiça tupi buruzagien aginduz, Nóbregak iradokitako lekuaren, indiarrek etxola bat eraiki zuten. Etxola hori bizileku, eskola, eliza eta abar bihurtu zen. Jose Antxietaren idatziek diotenez etxola horrek 14 pauso sakonera eta 10 pauso zabalera zituen. Kuriositate bezala, Jose ikasleak aipatzen zuen negu partean, hotz egiten zuenez, eskola ematea etxola barruan antolatzen zela, baina zenbaitetan beheko suak ateratako keatsaren eraginez, etxola guztia kez betetzen zela eta eskola nahiago izaten zutela kanpoan hotzak paseaz ematea. Janari aldetik berri, oso urri ibiltzen ziren eta gehienetan lurreko kalabazak, mostazaren hostoak edo zenbaitzutan mota jakin batzuetako txingurriak jaten zituzten.

Jesuitak Piratiningan finkatu eta urte batera, herriska edo “aldeian” (**17**) horretan eskola bat eraiki zuten Sao Paulo izenarekin (gaur egun ezagutzen dugun Sao Pauloren lehen eraikuntza). Aurrenean aldeiarri Sao Paulo Piratininga deitura eman zioten. Jose Antxietak eskola honetan Humanidade alorren ardura zeukan eta latina ere bere anaikideei erakusten zien. Ikasketa hauek hiru mailako-

ak ziren: behekoa, erdikoa eta goikoa. Bestalde, liburu eza handia zenez, eta bereiziki latinezko klasikoena, Jose Antxietak, eskolako koadernoak prestatzeko, gaueko orduak erabiltzen zituen.

Irakaskuntzatik kanpo Josek indiar gaztetxoenei dotrina erakus-ten zien. Indiarrekiko harremana garrantzi handikoa zen, eginiko lana bezala, alde batetik dotrina bide zela irakurtzen eta idazten irakasten zien eta indiarrek, era berean, harreman honen barruan tupiera eraku-tsi zioten.

Jose Antxietak bazekien indiarra kristautzeko berauen hizkun-tza eta ohiturak jakitea ezinbestekoa zitzaiola. Jainkoaren hitza behar bezala ulertzeko ez zen egokiena portugesa edo beste hizkuntza arrotz bat horregatik beraien hizkuntza eta ohiturak bitarteko zirela erakutsi behar zitzaien.

Hizkuntza ez ezagutzeak misiolariei beren buruak askotan ara-zoetan murgiltzea ekarri zien. Adibidez, konfesioetako apaiza eta indiar penitentearen artean itzultziale modura indiar gaztetxoak ibil-tzen ziren; baten aitormenak eta bestearen penitentziak itzultzen aritzen zirelarik. Ekintza horrek esames asko sortu zituen baina M. Nóbrega gaztetxoak ondo prestatuak zeudela esanez defendatzen zen.

Hizkuntz arazoa gainditzeko 1555 urtean tupieraren gramatika (**18**) eta hiztegia idatzi zituen Josek. Lan horiek zirela eta, jesuiten aspaldiko ametsa errealitye bihurtu zen: dotrina indiarren hizkuntzan erakustea.

Hizkuntzaren arazoa neurri handi batean gainditu zenez, orain arazoa eliz ingurura indiarra nola erakarri zen. Aspaldidanik jesuitak ohartu ziren indiarrek musikarako zuten zaletasun eta dohainaz eta poliki-poliki alor hori ere landu zuten. Beraz, kristau giroa pizteko

jesuitek izugarrizko prozesioak, erromeriak, eta gainontzeakoak, musika instrumentuak lagungarri zituztela, antolatzen zituzten.

Jose Antxieta tupieraz jabetu zenean katekesia hizkuntza honetan ematen zuen, bai Kantu asmatuen bidez bai portuges eta gazteleratik itzulitakoen bidez, hots beti giro profanotik erlijiosora paseaz.

Jose Antxietarentzat 1566ko abuztua garrantzitsua izan zen, misiolaritzan beste maila bat hartu baitzuen: egun horretan Jose Antxieta apaiz egin zen. (nahiz eta agindua Trenton jesuiten generalak 1563ko martxoaren 25ean emana izan.)

Jose Antxieta apaiz egin zenean eskutitz hau idatzi zuen:

*"O que grande ceia! o que real convite!.....
Alegrai-vous no Senhor, caríssimo, outra vez vos
digo que vous alegreis, porque vos tem o Senhor
plantado en sua, como oliveira fructifera e muy her-
mosa nos campos".*

Jose Antxietaren antzerkia, katekesian oinarritu izan zen, Jose Antxietak kristaututako indiar gaztetxoei antzerkiak antzeztarazten batzikzien.

Antxieta eta kolonizazio gatazkak.

1555 urtean frantsesek Nicolas Durand Villegaignon-en agindupean Brasilgo Guanabaran asentamentu bat eraiki zuten. Bost urte luzez Brasilgo kostaldean han-hemenka ibili ondoren, azkenean beren nahia bete zen. Frantzesen asentamendura kalvindarrak etorri ziren eta etorkin berri horiek jesuiten kongregazioa ernegatu zuten, burrukan frentea berri bat, erlijioarena, irekiz.

Portugesek asentamentu hau deuseztatu zuten eta gatazka horien pasarteen kontakizuna Jose Antxietak “De Gestis Mendi de Saa” (19) poema epikoan adierazten du.

Frantzesen asentamentua deuseztatu ondoren, haien sakabanatu egin ziren. Batzuk baso barrura sartuz indiar tamoioekin harremanak hasi zituzten, indiarra k zirikatu zituzten portugesen aurka matxina zitzen. Honela Santos, Itanhaémy eta S. Paulo aldeiak eta S. Vicente kapitania maiztasun handiz sitiatuak izaten ziren. Gatazka horiei amaiera emateko, M. Nobregak, J. Antxietak eta Antonio Luisek tamoioekin pakea sinatu zuten. Iperui lurraldea (gaur egun Ubatuba bezala ezagutzen dena) bost hilabetez tamoioen tribuak bahitua, Antxieta egon zen bake ituna sinatu zen arteraino. Tamoioekin izan zituen pasadizuak “De Beato Virgine Dei Matre Maria” (20) deituriko poeman azaldu zituen Jose Antxietak. Poema hori latinez idatzi zuen.

Brasilen pakea sendotzen zohoan, alde batetik tamoioekin egindako ituna ondo zohoan eta bestetik frantsesen presentzia ezerezean gelditu zen. Egoera horretan oinarrituz jesuitak Brasil probintzia erlijiosoa antolatzeari ekin zioten. Horretarako esan behar da gerora Rio de Janeiro izango zenaren lehen urratsak finkatu zirela. Garai horretarako M. Nóbrega oso zahartua zegoen eta aldaketa eskatu zuen.

Antxieta probintziala

1576 urtean Jesusen Konpainiako Everardo Mercuriano generalk, aita Jose Antxieta Brasilgo probintzial izendatzen zuen kredentziala sinatu zuen.

1577ko apirilaren 8an aita Jose Antxieta, Brasilgo probintzial izendatu zuten. Garaikideek diotenez, Jose Antxietak agintaritza apal-

tasunez hartu zuen. Aginte horrek ez zion inolaz ere bere aurreko ohi-turrik aldarazi, bai bere ordeneko anaia, indiar nahiz portuguesei aurreko tratu bera eskaintzen baitzien. Esan ohi da probintzial izendatu zuten egunean bere anaikideei hankak garbitu zizkiela.

Aita Jose Antxietak kargua hartu zuen garaiaik ez ziren bera Brasilera iritxi zirenkoak, garai hartan 30 jesuita baitzeuden eta probintzial izendatu zutenean berri 140. Bestalde indiar bataiatuen aldeiak bikoiztu egin ziren, eta zer esanik cz kolono, hazienda, azukre produkzioa, meategia eta abar luzeak, guzti horiek osatzen zutelarik garaiko Brasil zurrubilotsu hura.

Jesuiten asentamentuak Brasilen zabaleran han eta hemen zeudenez, denetara irixteak hiru urteko bidaia suposatzen zuen. Aita Jose Antxieta batetik bestera bisitak egiten ibiltzen zen, bai zirela ikastetxeak, erresidentziak edo aldeien asentamentuak; hauek gehienak itsasertzean kokatuak egoten ziren, eta batetik bestera joateko itsasoz beste modurik ez zegoen. Horregatik Antxietak bere agintaritzaren denboraren zati handi bat nabigatzen pasa zuen eta horretarako Santa Ursula izeneko itxasontzi txiki batez baliatzen zen. Ibilera horietan ikastetxeetako irakaskuntzari egitura berri bat ematen ere saiatu zen (aldaketaren bidez Coimbrako eskolarekiko antzekotasuna bilatzen saiatuz).

Aita Jose Antxietari 1586 urtean Bahian zegoela, misiolariak Paraguaira bidal zitzala eskatu zion Tucumam-go (Paraguai) gotzai zen Francisco de Vitoriak. Eskakizuna ez zen soilik giza taldeentzat, eta barne hartzen zituen tupieraz idatzitako gramatika, hiztegia, dotrina, kantuak, eta abar ere. Eskakizun hori Jose Antxietarentzat urte askoko lanaren onesprena izan zen.

Aita Jose Antxietak bere probintzial agintaritzan arazo asko izan zituen; pentsa litezkeenak baino handiagoak. Honen adibide, esklabu arazoak ditugu, eta horrek jesuitak orohar erabaki zorrotzak hartzera builtzatu zituen. Etorkinen etorrera egunetik egunera handiagotzen ari zen; lurrauen hurrupakuntzak etekin onak ematen zituenez, laneskuaren edo, hobeto esanda, esklabuen beharra handiagotu egin zen. Nahiz eta esklabu horniketaren iturri garrantzitsua Afrika izan, esklabuen lehen iturria Brasil bera zen, aurreneko indiar kristautu gabekoak iza-nik esklabu eta, gerora, kristautu-tara ere zabañdu zelarik.

Arazo honek aurrez aurre jarri zituen kolonoak eta jesuitak, agintaritza politikoa, berriz, bere txepeltasunean batera edo bestera erortzen zen bitartean.

Esklabu arazo hau zela eta, jesuitek Antxietari eskatu zioten kolonoei aditzera eman ziezaiela indiarrauk esklabu bihur ez zitzatela edo bestela aldeiak alde batera utzikoz zituztela. Jesuitek aldeiak utziz gero, nahasketak eterri zitezkeen. Horrela, Portugalgo erregearen agindu zehatz bat lortu behar zen indiaren eskubideak errespetatuak izan zitezen eta ez gobernadore txepel baten gora-beheren menpe egon.

Antxieta, batzuen eta besteek presioek bultzatuta, erdibide bat aurkitzen saiatu zen. Azkenik, Bahiako agintariekin erresoluzio bat atera zuten arazo hau gaindi-tzeko:

“O que se deve propor a sua Majestade acerca dos indiars é o seguinte: que faça lei que que daqui em diante nenhum indiar do Brasil possa ser escravo”

Agiri hau jesuita eta esklabuentzat garaipen bat izan zen. Esklabu arazoaren amaiera Aita Jose Antxietaren agintaritzaren azken urteetan izan zen.

Jose Antxietaren ekintza ez zen ekintza bakartia izan, gure apositoluak behartsuei begirune berezia zien eta bere kongregazioko lagunei esaten zien elizetxeak gau eta egun egon behar zutela irekiak, eska-le guztiekin ostateko izan zezaten. Antxietak esklabuei ere laguntza luzatu zien, esklabutzak zirauen bitartean, hauek ere espiritualki beren nagusiek zituzten medio berdinak izan zitzaten nahi baitzuen, horrela, esklabuekin debozio eta denbora libreko kofradiak sortu zituen, baina ez zen horretan bakarrik gelditu, neurriko soldatik (garaiko soldatua gauzez ordaintzen zen) eta esklabuekin giza errespetua izan zezatela eskatu zien nagusiei.

1587 urtean Bahiara, A. Marçal Beliarte iritxi zen Aita Jose Antxieta probintzial agintean ordezkatzerakoan. Urte berean, A. Jose Antxieta Espiritu Santoko Santiago erresidentziko Nagusi izendatu zuten, karguaren arduran erresidentzi honi lotuak zeuden aldeiak barne zirelarik.

Aita Jose Antxietaren azken urteetako ibilerak mirarizkoak omen ziruditen. Aldeietarantzako bisitak nekagarri egiten zitzaizkion gorputzarentzat, baina gogoa gorputza baino arinagoa zuen. Hara eta honako ibilerak hankutsik egiten zituen eta zenbait lekutara zaitasunengatik ezin bazen iritxi, indiarrek hamaka baten gainean ipinita eramatzen zuten.

Jesuiten buruak, Antxietaren egoeraz kezkaturik, azken urtetako atsedena izan zezan berak nahi zuen lekua hautatzeko esan zioten; Antxieta, bere lanari jarraipena emateko Reritibara, bera probintzial zegoelarik eraiki zuen herriskara, erretiratu zen.

Aita Josek, azkar gaixorik ohera erretiratu beharra izan zuen. Baino lagun hurkoarentzat zuen maitasuna gorputzeko xularmenetatik ateratzen zitzaion eta egun batez gaixo zegoen bati botika (gure sain-

dua medizina naturistan aditua zen) prestatzeko ahalegin horretan, ahuleziak jota lurrera erori zen, eta berriro ohera eramanda, bere bizi-tzako azken sei hilabeteak ohean egin zituen..

Ohean zegoelarik, ekainaren 5ean Corpus Cristi egunaz milaka indiarrek egundainoko prozesioa antolatu zuten, eta aita Jose Dohatsuak indiarren kantuak ohetik entzun zituen. Handik lau egunera 1597ko ekainaren 9an, buruz argi zegoelarik, biderakoa eskatu zuen eta, errezu guztiei behar bezala erantzunez eta bi eskuak zeruñantz zituela, ordu erdiz horrela egon ondoren, bere anima Jainkoari eskaini zion.

Hilobiratzeko bere gorputza Espiritu Santo hirira eraman zuten eta gorputua bidaian zihoala bide ertzetara indiarak ateratzen ziren, batzuk belaunikatuz besteak zutik, besteak errezzuz eta kantuz Aita Jose Antxietari azken agurra eskaini nahian. Bide ertzetako indiaren esane-tan: aita handia hil da:

“Page Guaçu nao vive” “Page Guaçu e morto”

Aita Jose Antxieta dohatsuaren hiletan Brasilgo gotzai zen Aita Leitāok esan zuena ondorengoa da:

*“Brasilgo eraztuna Jesusen Konpainia izan da,
baina eraztun honen diamantea Aita Jose Antxieta
saindua da”.*

ANTZERKI ANTXIETARRAREN UNIBERTSALTASUNA

*Jose Antxeta dohatsuak Brasil taulatzat hartuz, bizi
izan zen bitartean ikusleek beraien bizitza irudika
zezaten, errealismoz jokatu izan zuen: Indianren hiz-
kuntzan -tupieran- mintzatzuz, beraien kantu eta musi-
kan abestuz, portaera idurikatuz: ile luzea utziz, han-
kutsik ibiliz.....*

Jesuitak Brasilera iritxi bezain laster indiarren zenbait dohainez eta hauetaz katekesiko ekintzetarako baliatu beharraz ohartu ziren. Indianrek beraien zeremonietan musika eta dantza erabiltzen zuten. Ezin ahaztu ditugu bertsotarako zaletasuna zutela eta asabe zaharren balendriak kontakizun modura adieraztea ere gustuko zutela.

Gaur egun esango genuke indiarrek Arte Eder Mugikorretarako, dantza, musika eta kanturako abilezia eta zaletasuna zutela eta jesuitek katekesian hori guztia erabiltzea pentsatu eta praktikan jarri zituztela.

Aurrenean ekintza horiek susmagarriak izan ziren zenbait elizgizonentzat; nola nahastu zitezkeen jentil dantzak, kantuak, musika eta tresneria katekesiko erakusketa erlijiosoarekin? Aktibitate hauek garai-ko apezpikua zen Pedro Fernandes Sardinha jesuitak gogor kritikatze-ra eraman zuten eta bereziki hauen buru zen M. Nóbrega ekintza hauen ezin ulertua handia zenez, salaketak Portugalgo eliz agintariengana ere iritxi ziren.

Jose Antxeta ere kritikek erdiz erdi harrapatu zuten baina ez zen kokildu, berak argi zuen indiarrek bereganatzeko pausoak poliki-poliki eman behar zirela indiarengan inongo susmo txarrik sortu gabe eta, horrela, gaur jentilak ziren dantza, musika eta kantuak bihar elizako

organuaz ateratako doinu, kantu eta aberrez aldatuko zirela elizaren alde eta kristautasuna garaile aterako zela.

Lehen esan dut indiarrek ere bertsotarako, kontalaritzarako zale-tasuna zutela. Indiarren etxolak gertaera bitxien leku bilakatzen ziren, etxolara bisitari bat etortzen bazen, sendi artekoa nahiz laguna izan, emakumezkoek inguratzen zuten eta bisitariaren bidaiako pasarteak, gertatuak edo gerta zitekeenak, bertsoz kantatzan zituzten. Bertsolari hauentzat hoben handia zen norbaitek beraien jokoa etetea.

Antzerki parakide hauetaz jesuitak jabetu ziren, katekesiaren alor handi bat antzerkiak osatzen zuelarik. Ohartu behar gara, jesuitentzat antzerkia ez zela arrotza. Ikastetxeetako Gizarteko ikaskuntzan erabilitako alor bat zen eta orain katekesian praktikatzea erreza egiten zitzaien.

Bestalde, esan behar da Brasilen bazirela antzerki eskaintzak jesuitak antzezten hasi aurretik. Izan ere, M. Nóbregak Antxietari antzerki obratxo bat idatzi zezan esan zionean, “Eroen festa” deituriko antzezkizuna eskaintzen zelako esan zion, antzerki horretan dantza eta irudi lizunari askatasuna ematen baitzitzaien jesuiten eskandalurako.

Antxietaren lehen antzerkia “Auto de Pregaçao Universal” ize-neko antzerki lana izan zen eta gehien bat aipatutako giro lizuna ahultzeko izan zen.

Aurrez esan dudan bezala, jesuitei indiarrek kristautzeko giro propioa lortzea ezinbestekoa zitzaien, indiarrek giro atseginingarria murgilduz, dotrinaren ikasketak modu errazean egim zitzaten. Giro onaren zutabe nagusi ekintza dramatikoak izaten ziren. Jesuiten antzerkia esentzialki humanoa izan zen eta lehen urratsetan indiarrek dibertituz elizako ikasgietan murgiltzen ziren.

Aurrenean dramatizazioak xinpleak baziren ere, gerora gorpuzten joan ziren. Taula eta jokolariez osatuz, antzerki egitura osatzen dute. Jokalariak zuriak, indiarak, gudariak izaten ziren. Aurreneko antzezkizunak improbisazioak ziren; gerokoak, berriz, ikasketan oinarrituz kalitate aldetik beste maila bat hartu zuten, bai testuz, bai estetikaz. Nolanahi ere, aldaketa guzti horiek printzipio erlijiosoa galdu gabe egiten ziren eta katekesi giroa goratzearen onurako izan ziren -ez zen inolaz ere ahazten antzerkiaren funtziop pedagogikoa-.

Antzerki mota honek katekesian sortzen zuen girotik kanpo, bazuen beste helburu garrantzitsu bat: erlijio eta administrazioko zenbait pertsonalitateri harrera egitea. Azken honen adibide gisa esan dezakegu San Lourenzo aldeian, Brasilgo agintari ziren Luis Grão, Blas Lourenço, Joan Gonçalves, Antonio Blasque etab. errezibitzeko antzerki emanaldiak prestatu zituztela.

Misioetako zaindari eguna ospatzeko ere “Jesusen Misterioa” antzerki obra antzezteko prestatu ziren. Ospakizun horretara beste asentamentuetako biztanleak inguratu ziren eta mendi eta bailaretatik zetozenean heinean, beraien soinu tresnen otsez baliatuz bailara osoak kontzertu bat zirudien.

Indiar ikusleak bi motakoak ziren, batzuk bataiatuak eta besteak jentilak (bataiatu gabeak); aurrenekoak elizkizun guztietan parte hartzen zuten, aldiz bigarrenak beste jokaera izaten zuten, indiar horiek gehienak tamoiokoak ziren eta, gerlariak izanik, “antzeztokian” eta taula aurrean beraien gorputzak margotuak eta gerlako arku, gezi eta lantza eskuetan zituztela, dantzaren eromenean erori arte ibiltzen ziren.

ANTZERKI ANTXIETARRAREN EZARKUNTZA BRASILEN

1555 urte inguruan Jose Antxieta anaiak San Lourenzo aldeian indiarren asentamentua eraiki zuen eta herrixka honetan berak sortutako “Indiarren Antzokia” ikertzaile zenbaitek deitzen dion bezala “Brasilgo Antzerki Nazionala”ren lehen urratsa da.

- 440 ¡Ave! madre de Dios vivo,
 y siempre virgen entera,
 capitana muy guerrera,
 por quien el pueblo cautivo
 de culpa salir espera.
- 445 Comp 1º. ¡ Ave! bienaventurada,
 ancha puerta del cielo,
 por la cual los de este suelo
 hallan espaciosa entrada
 para allá entrar sin recelo.
- 450 Reibísteis aquel ¡Ave!
 de la voz de Gabriel,
 tan divino y tan suave,
 que fuísteis hecha conclave
 de nuestro gran Dios Manuel.
- 455 Comp. 2º. En “ave” se mude “Eva”,
 que peturbó nustra paz.
 Mas vos, otra Eva nueva,
 nos sacaréis de la cueva
 y prisión de Satanás.
- 460 Vos sois de los ciegos lumbre,
 destrucción de los pecados,
 libramiento de culpados,
 que lleváis a la alta cumbre
 de todos bleses colmados.

465 Comp.3º. Mostrad que sois pía madre
del Padre que os creó,
que en vuestra mano entregó
en la cruz, como buen padre,
los hijos que redimió.

470 ¡Ave! virgen singular,
de las mansas, la más mansa,
cuya gracia nos alcanza
ser mansos sin nos airar,
y castos con gran bonanza.

475 Comp.4º. Concedednos vida pura,
dadnos seguro camino
para ver la hermosura
de Jesús, dulce y benino,
cuya vista siempre dura.

480 Gloria sea al sumo Padre,
gloria al Hijo redentor
y al Espíritu señor,
cuya gracia os hizo madre
virginal del Salvador.

485 Ntr. Sra.- Yo soy estrella, sin duda⁽²⁹⁾
que todo el sol encubrí.
Yo soy la que concebí
a Dios, que nunca se muda,
y después, virgin, parí.

(29).-Vv. 481-550. Son 70 los versos que Antxieta pone en boca de María. Catorce quintillas perfectamente rimadas, con un riquísimo contenido teológico, algunas incluso con intenso sabor místico. Se dirige en un primer plano a los romeros allí arrodillados, y con ellos a los cofrades de la Misericordia y a los fieles todos de la capitánía del Espíritu Santo.

- 490 Yo soy la que, visitando
mi prima santa Isabel,
mi hijo dio gracia y miel
a su hijo, de él lanzando
el pecado, con su hiel.
- 495 Yo soy la que hoy gané
nombre de visitadora,
de todo el mundo tutora,
por quien gana gracia y fe
la vil gente y pecadora.
- 500 Yo soy el manto del mundo
que sus pecados cubrí.
Yo soy la que merecí
sacar del lago profundo
los que se acogen a mí.
- 505 ¿Quién me llama, que no alcance
remedio para sus males?
¿A quién doy mis virginales
pechos, que de sí no lance
toda las culpas mortales?
- 510 Pues si me tenéis amor,
como de fuera mostráis,
pidoos que más no ofedáis
a mi hijo y mi Señor,
cuyos hijos os llamáis.

- 515 Él está siempre conmigo
 y yo siempre estoy con él.
 Yo soy todo vuestro abrigo,
 él os tiene acá consigo,
 dándoos gracia, que es la miel.
- 520 Gustad de él, que es muy suave.
 Comedlo, para vivir.
 Él es la divina llave,
 que a mí se me dio en el “ave”,
 para los cielos abrir.
- 525 Él es la miel sustancial,
 del alma dulce comida.
 Él es el dulce panal,
 que en mi vientre virginal
 se crió por darnos vida.
- 530 Esta vuestra cofradía,
 con que a pobres socorréis,
 es obra tan santa y pía,
 que con ella me tendréis
 a las puertas cada día.
- 535 Por mi honra y la de Dios,
 curáis los pobres fieles.
 No queráis ser contra vos,
 por la culpa tan crueles
 que no perdáis a los dos.

- 540 Quedaos, mas no me voy
y no me aparto de vos
pues siempre con vos estoy
y mil mercedes os doy,
que en mi mano puso Dios.
- 545 Yo os dejo mi bendición,
y haced gran regocijo,
pues, por mi visitación,
os alcanzaré perdón
de mi Dios, Señor e Hijo.
- 550 Pido al Padre soberano y al Hijo,
Nuestro Señor,
y al Espíritu dador
de vidas, ponga su mano
sobre vos, con dulce amor.
- 555 Romero Pues que Dios se encierra
de los malos yo, el más malo,
os pido que, en paz y en guerra,
todo el pueblo de esta tierra
tratéis con todo regalo.
- 560 Pártome, sin me partir
de vos, mi madre y señora,
confiado que, en la hora
en que tengo de morir,
seréis mi visitadora.

ACTO III: DESPEDIDA

Mientras Nuestra Señora se recoge, se retiran los romeros cantando:

Romero **¿Quén te visitó, Isabel⁽³⁰⁾**
 que Dios en su vientre tiene?
 Hazle fiesta muy solene,
 pues que viene Dios en él.

565 Este es el gran vergel
 de virginidad cercado,
 de cuyas flores creado
 fue aquel panal de miel,

570 que se llama Emanuel,
 que en su vientre limpio tiene.
 ¡Hazle fiesta muy solene,
 pues que viene Dios en él!

(30).-El auto termina como empezó. Con la cantiga anónima. Así lo hacía con frecuencia Gil Vicente.

AZKEN OHARRAK:

Antzerki antxietarrari balio dramatiko berezirik aurkitzeko hausnarketa serioetan murgiltzeak antzerki mota honen muinetatik kanpo gelditzea esan nahi luke, jakina baita Antxietaren errainetatik goiargitutako antzerkiaren eredua apostolotza izan zela. Antzerki antxietarra kristautasunaren balioen baieztapena eta hereseen aurkako arma zorrotza izan zen.

Antzerki antxietarra taula gainetik kristau mezua, akzio eta poci-sia irudian alkimizatuz, ikuslegoaren anima xaloen barru-barruraino sartzen zen. Antzerki mota honi gehienetan autoa deitura eman diote, baina garai hartan Portugalgo antzerki erlijiosoari beste izen hauek ere ematen zizkioten: praktika, dialogo, obra eta pronto.

HIZKUNTZA. Aita Jose Antxietak, Gil Vicenteren antzerkia ezagutzen zuela zalantzak ez dago. Gil Vicenteek berrogeita lauren bat antzerki idatzi zituen eta gutxienez hauetatik hiru Coimbrako Unibertsitateari eskaini zizkion.

Ez da harritzeko Antxietaren antzerkian Gil Vicenteren edo garaikideen antzerkiekiko kidetasunik aurkitzea, baina honek inolaz ere ez du esan nahi plajioak direnik.

Gil Vicenteren antzerkian hizkuntzaren bikoitzasuna (portuguesa eta gaztelera) maiz ikus liteke. Egile honen antzerkian hizkuntzaren bikoitzasuna gizarte maila nabarmentzeko iza-tzen zen, adibidez, zenbait pertsonaia portuguesez mintzatzzen baziren, artzainak eta laborariak gazteleraaz mintzatuko ziren eta denok dakigu antzerkian pertsonaia hauek ezjakintasunaren adierazgarri zirela.

Antxietaren antzerkian hizkuntza ez da mailatasunaren adierazgarri baizik eta ikuslearekiko komunikazio soila. Hizkuntzaren erabilerak bere arazoak sortu zizkion, sasoi hartan gizartea ez baitzen elebiduna eta hizkuntzak, gizartean zeuden multzoen desberdintasunak areagotzen baitzituen. Bertako hizkuntza tupiera zen eta kolonoena berriz portuguesa orokorrean eta gaztelera zenbaitzutan.

Eskamentuz badakigu dominatzaillek ez dutela menpekoen hizkuntza ikasten, honek pentsarazten dit giza ژul-tzoen araberako hizkuntza erabiliko zela. Hizkuntz arazoari irtenbide bat emateko antzerkiak bat, bi nahiz hiru hizkuntzetan idatzi zituen Antxietak.

TESTUA eta EGITURA. Antxietaren autoetan beste garaiko antzerki erlijiosoetan bezala, “protagonista-antagonista” -on eta gaiztoen- guretzako hain ezagun egiten den “giristino eta turkoen” arteko jokoa ematen da. Giristinoa borondatearen zintzotasuna eta turko borondate akatsaduna bezala konsideratuak ziren. Joko hau kontrastearen inguruan garatzen zen eta gainera antzerki antxietarraren ikusleari kontrastea inolako iluntasunik gabe eskaini beharra zegoen, ikusleak duda izan ez zezan.

Antxietaren antzerkian “ongia” bere osotasunean den bitartean “gaizkia” nahas-mahas agertzen da eta gehienetan egoera barregarrian. Joko hau Antxietaren antzerkian iraunkorki agertzen da, eta honi plastizitatezko egitura dramatikoa erantsiz, ikusle xaloak argi ulertzten zuen protagonistaren “on” eta “gaizkiaren” arteko borroka.

Antzerki antxietarraren gai guztietan asmo didaktiko-ejenplarizantea agertzen da. Oreka mantentzen du didaktismoa eta erlijioaren artean. Bestalde, antzerkiak bertsotan idatziak daude eta zortzi silabadunak dira -garaiko idazleek gehien crabiltzen zuten metrika-. Bertsoen egitura portuguesez eta gazteleraez erabiltzea erreza egingo zitzaion, Coimbrako ikasketetan erabiliko zituen neurriak baitziren baina tupieran bertsoak neurri hauetan hain ondo eratzea ez zitzaion seguraski hain erraza gertatuko.

PERTSONAIAK. Antxietaren antzerkian denetariko pertsonaiak azaltzen dira: harro-putzak, maltzurrak, nagiak, gaiztoak, traidoreak, koldarrak...guzti hauen gaiztakeriak, zintzotasunak garaituak izaten dira. Pertsonaia hauek fedearren haritik zintzilikatutako txotxongiloak dira, eta ez eguneroko bizitza arrunteko gizakiak. Pertsonaia protagonista beti ikusleen eredu izango da eta antagonista, berriz, hiru motatan azaltzen da: alegorikoa, gizona eta deabrua. Pertsonaia alegorikoek gaizkiaren mezua, arestian aipatu dugun bezala, eszenan agertzen dute, artzai eta laborari ezjakinak ditugu. Gizonak, berriz, Jainkoaren aurka eta bizitza gaizkian oinarritzen du, beti frakasatuz.. Deabrua, gizona bezala hau ere Jainkoaren aurka agertzen da eta aingeruak, ongiaren defendatzaleak, deabruak modu barregarrian utziz beti garaile ateratzen dira.

Ikusleak, S. Vicente lurrealdeko indiarrek dudarik gabe Antxietaren antzerkian leku garrantzitsua zuten; hauek tamoioak, tupinikinak, temimionoak, tupinanbak eta tapuiak ziren eta guztiekin beren miseria morala agertzen zuten: dantza, kantua eta musikaren bidez nahiz ohituretako zenbait musika tresniekin tauclaratuz eta gerla krudelak, gezurrak, edariak, kanibalismoa eta desoneskeriak gainditzen zituzten, elkarrizketa zintzoarekin hobetasunaren aurkako nahia, konfesioak

eta komunioak eginez eta, azken batean, kristau bizitza berri bati ekinez aldeia eta etxola berrietan. Guzti hau gehienbat tupieraz eskaintzen zen, mezua zuzenki indiarentzat baitzen. Antxieta indiarren hinkuntza eta ohituren jabe zen eta mezua berauek ulertzeko moduan jartzen zuen.

Antxietaren antzerkia, begiarekikoa zen, antzerkiaren egitura-ren oinarri nagusiak kantua eta dantzak zirelarik

Antxietaren antzerkiaren egituraren antzeko antzerkia gure Euskar Herri honetako “Paloteado” antzerki mota da. Bi antzerki mota hauek konparatuko ditugu (1996 urrian Nafarroako Ablitas herrixkan ikusitako paloteadoa hartzen dut eredutzat).

Antxietaren antzerkia

- 1.- Errezibimendua, kaia edo herriko sarre-raren atean egiten da. Elizako Saindu, erlikia, irudi, eta abarrez edertua. Batzuetan pertsonalitate bera errczibitzen dute
- 2.- Prozesioan (erlikia, irudi eta abarrekin) elizako atarian dagoen taulara joaten dira.
- 3.- Deabrua agertzen da eta ikuslegoari adierazten dio, herria suntsituko duela eta festa bera ere galeraziko duela.
- 4.- Aingerua agertzen da eta deabrua taulatik bidaltzen du.
- 5.- Zenbait eszena aurkezten dira bai direla sainduen bizitzakoak, pertsonalita-teen pasadizoak eta abar.
- 6.- Dantzariak, kantuz eta dantzaz erlikia, saindu edo pertsonaiari eskariak egiten dizkiote.
- 7.- Prozesioan, erlikiak, pertsonaiak eta abarrekin elizara joaten dira.

Paloteadoa

- 1.- Prozesioan Errosarioko Amaren irudia herriko plazan dagoen taulara eramatzen dute. Mayoralak Errosarioko Amari alabantzak adizkio.
- 2.- Rabadan agertzen da eta herriko zenbait pertsonaia eta gertaera giro umoretsuan kritikatzen ditu. Gehienetan mayoralarckin izaten da elkarritzeta.
- 3.- Deabrua agertzen da eta ikuslegoari adierazten dio, herria suntsituko duela eta festa bera ere galeraziko duela.
- 4.- Aingerua agertzen da eta deabrua taulatik bidaltzen du.
- 5.- Mayoral eta Rabadanen elkarritz-ketak jarraitzen du.
- 6.- Dantzariak, dantzaz eta kantuz Errosarioko Amari eskariak egiten dizkiote.
- 7.- Prozesioan Errosarioko amarekin elizara joaten dira.

Antxietaren autoak eta Ablitasko paloteadoren arteko aldea 400 urteko da, batean eta bestean giroa ere desberdina da, baina hala eta guztiz ere batak bestearekiko duen antzekotasuna nabarian gelditzen da.

Antzekotasun honen arrazoia iturri eta garai beretik sortutako antzerki motak izatean datza. Hau da, Erdi Aroko antzerki erlijiosoan dute iturburua.



GERTAEGUN ANCHIETARRAK

1530 urtean

Juan Anchieta eta Mencia Diaz de Clavijo ezkondu ziren.

1534 urtean

Jose Anchieta:

- * Martxoaren 19an Tenerifeko San Cristobal de la Lagunen jaio zen.
- * Apirilaren 7an Erremediotako Amaren elizan bataiatu zuten.

1548 urtean

- * Irailean Tenerifetik Coimbrara joan zen. Coimbran “ Colegio Real das Artes ”en ikasketei hasera eman zien.

1551 urtean

- * Lehen ikasketak “Colegio Real das Artes”en amaitu zituen.
- * Maiatzaren 1ean Jesusen Kopainian nobizio onartu zuten.

1553 urtean

- Otsailaren 18an Juan Anchieta, Joseren aita hil zen.
- Jose Anchieta maiatzaren 8an Lisboako kaian, Brasil aldera itsasoratu zen. Uztailaren 13an Brasileko Bahiara iritxi zen, eta abenduan Juan Azpilikueta jesuita euslkalduna ezagutu zeun.

1554 urtean

Jose Anchieta:

- * Urtarrilaren 25ean Piratininga bailarara iritxi zen. Gaur egun Sao Paulo dago bertan kokatua.
- * Abuztuan Anchietak Loiolako Inaziori eskutitzza idatziz kontatu zion nola etxola batean bizi ziren eta bertan eskola eta dotrina erakusten zuten.

1555 urtean

* Hizkuntza tupi-guaranien gramatika, hiztegia eta dotrinako zenbait pasarte prestatu zituen. 1595 urtean Coimbran argitaratu ziren.

1561 urtean

* *DE GESTIS MENDI DE SAA* poema idatzi zuen.

- Abenduaren 25ean *Pregação Universal* antzerkia eskaini zen São Paulon.

1563 urtean

Jose Anchietak:

* *DE BEATA VIRGINE DEI MATRE MARIA* poema idatzi zuen latinez.

1570 urtean

* Abuztuaren 15ean *Reritiba* (gaur egun Anchietak hiria bezala ezagutua) eraiki zuen. Hogei urte beranduago Portugaldeko bidalitako Asuntzionen irudia tronuratu zuten.

1577 urtean

* Apirilaren 8an Probintzial izendatu zuten.

1579 urtean

- Bere anaiordea hil zen.

1580 urtean

- Cristobal Anchietaren anaia gaztea hil zen.
 - Guaraparim aldeia, Anchietak probintzial zelarik, ofizialki eraiki zen.

1584 urtean

- *Gregoria Nuñez* bere arrebaordea hil zen.

1585 urtean

- Abenduaren 8an *Guaraparim* aldeian “*Na Aldeia de Guaraparim*” antzerkia eman zen.

1587 urtean

- Bere arreba zen *Teresa Anchietá* edo *Teresa de Celayaran* hil zen. Arreba honi begirune berezia zion bere elbarritasunarengatik.
- Abuztuaren 10ean *S. Lourençon* “*Na Festa de S. Lourenzo*” antzerkia eskaini zen.

1588 urtea

- *Jose Anchietaren ama, Mencia de Diaz de Clavijo* hil zen.
- *Jose Anchietak*, probintzial agintea utzi zuen eta *Vitoria hiriko superior* izendatu zuten.

1589 urtean

- *Guaraparimgo aldeian* “*Marçel Beliarte*” antzerkia antolatu zen.

1592 urtean

- *Beliarte probintzialak Jose Anchietá Brasilgo hegoaldeko Bisitadore izendatu zuen.*

1595 urtean

- *Vitoria Hirian* “*Santa Ursula*” antzerkia eman zen.

1596 urtean

- *Reritiba aldeian* “*Do P. Marcos da Costa*” antzerkia ikusgai izan zen.

1597 urtean

- Ekainaren 9an Jose Anchietak azken arnasa hartu zuen.
- Ekainaren 14an Vitoria hiriko São Tiago elizan hiletak egin ziren eta eliza horretan izan zen hilobiratua.
- Uztailaren 2an, Velha hirian "S. Isabel" antzerkia eskaini zen.

1609 urtean

- Anchietaren hezurrak, Bahiako ikastetxeko elizara eraman zituzten.

1617 urtean

- Beatifikazioa eta Kanonizazioaren prozesuari hasera ematea eskatu zen.

1736 urtean

- Abuztuaren 10ean Clemente XII.a Aita Sainduak "VENERÁVEL" izendatu zuen.

1760 urtean

- Anchietaren lau hezur, Lisboako Pombalgo markesari eraman zizkio-ten.

1773 urtean

- Beatifikazioaren prozesua gelditu egin zen, Clemente XIV.ak Jesusen Konpainia desegiteko agindua eman baitzuen.

1897 urtean

- Anchietaren heriotzaren hirugarren mendeurrena dela eta ospakizun asko antolatu ziren eta beatifikazioaren eskakizunaren deiadar berriak iritsi zitzaitzion Aita Sainduari.

1899 urtean

- *Hego Ameriketako apezpikutzak, Leon XIII.a Aita Sainduari Anchietaren beatifikazioa eskatu zion.*

1934 urtean

- *Jaiotzaren laugarren mendeurrenean Brasilgo lehendakaria zen Getulio Vargas jaunak martxoaren 19a Jai Nazionala izendatu zuen.*

1939 urtean

- *Brasilgo apezpikutzaren Osoko Kontzilioak berriro Aita Sainduari Anchietaren beatifikazioa eskatu zion.*

1950 urtean

- *Urte Saindua zela eta, Tenerifeko erromesaldi bat Erromara joanez Tenerifeko mankomunidadeko lehendakaria zen Antonio Lecuona Hardissonek eskutitz bat eman zion Aita Sainduari.*

1980 urtean

- *Ekainaren 22an Erroman Jose Anchietaren beatifikatu (22) zuten.*

1997 urtean

- *Ekainaren 9an Jose Anchietaren heriotzaren 4. mendeurrena ospatuko da.*
- *Brasilgo elizak urtemuga honetan erronka handi bat du: aita Jose Anchietaren kanonizazioa.(23)*

ARGIBIDEAK

(1).- CARTA PUEBLA

Erdi Aroan Gipuzkoa erregearen agintaritzapean zegoen eta lurraldetako hiri gehienak erregearen aginduz “Carta Puebla” deritzana emanet sortu ziren. Gipuzkoako hirien sortzea hiru helburu nagusitan oinarritu zen:

- . 1.-Mugak sendotzeko herriak mugetan eraikitzen ziren.
- . 2.-Itsas bazterretan hiriak sortzea, honek zuen eragin ekonomikoagatik eta itsasotik etor zitekeen etsaien erasoei eusteko.
- . 3.-Lurralde barruko hiriak, herriek bat bestearekin loturak izan zitzaten. Herrien sorkuntzan ez da pentsatu behar, ezerezetik sortzen zirenik, lehenagotik etxegune bat izaten zen eta horregatik herria sortzeko ez zen gehienetan biztalde deialdirik egin beharrik. Herriak erregearengandik “Sormen Eskutitza” lortzen zuenean pentsatu behar dugu hainbat ofizio ere bazeudela, adibidez, okina, harakina, harotza, zurgina eta zenbait merkatari txiki ere salerosketan ibiltzen zirenak. Orokorki begiratuz, hiri hauetako biztanleak nagusi bi eratakoak ziren: zaldunak eta nekazariak (edo morroiak). Bi maila hauen desberdintasuna hiri barruan izaten zen, aurrenekoek ez baitzuten zergarik ordaitzen eta bigarrenetik, aldiz, hai.

Herri bat sortzen zenean hiru berezitasun hauek izaten zituen:

- 1.-Hiria gehienetan harresiz inguratua egoten zen eta herriarrak harresi barruan bizi ziren.
- 2.-Herri horrek agintaritza bat izaten zuen, agintaritza hori izan zitekeen laikoa edo eleiza rena eta baita ere herriarrak hautatua edo erregeak berak izendatua.
- 3.- Hiritarren aktibitate desberdinak.

(2).- ELIAS, Imanol.- JUAN ANCHIETA-Apuntes Historicos C.A.P. de Guipuzcoa-1981 (H.37).

(3).- ZALDUNAK.

Euskal gizartean zaldunak ondasunak, hau da, errota, ohola, baserri, baso eta zelaiak zituztenak ziren. Ondasunetatik etekina errenten bidez lortzen zuten. Hau zela eta, hirietako biztanleak zaldun eta nekazarietan banatzentziren gehienetan, bigarren hauek lehenbizikoen menpekotasunean soldatua irabazten zutelarik.

(4).- GURRUCHAGA, Ildefonso.- NOTAS SOBRE LOS PARIENTES MAYORES. TREGUAS Y COMPOSICIONES DE LA CASA DE LOYOLA. DOCUMENTOS - R.I.E.V. T.XXVI. (H.481)

(5).- AHAIDE NAGUSIAK

Ahaide nagusiak deitura antzinako zenbait zalduni ematen zitzaion. Gipuzkoako lurraldetakoak dagokienez, esan behar da aberatsak zirela eta beraien lurraldetako jabetzak zabalak zirela. Zenbaitek esaten zuen jauntxo hauetako Gipuzkoaren asabentzuk zirela -Gipuzkoan lekuak hartu zuten lehen sendiak-. Gipuzkoako lurraldetako bitan banatua zegoen alde batean OÑAZTARRAK zeuden eta GANBOATARRAK beste alderdian. Ofiziarren alderdian parte hartzen zuten jauntxoen sortetxeak hauetakoak ziren: LAZCANO -AMEZKETA - LOYOLA -OZAETA -GAVIRIA ARRIARAN -YARZA -BERASTEGI - UNZUETA -LIZAUR -MURGUIA -ALCEGA -AGUIRRE -CERAIN eta UGALDE. Ganboatarren partaideen zerrenda ondokoek osatzen zuten: OLASO.-BALDA.-ZARAUZ.-TRAETA.-ZUMAYA.-IAULAZA.-CEGAMA .-SAN MILLAN eta ACHAGA.

Ahaide nagusien deitura hurrengo sortetxeetakoak ere ematen zi-tzaien: EMPARAN -ECHEZARRETA -AZCUE -LEABURU eta ACELAIN. Ahaide nagusiek, zitzazten ondasunen bidez, nagusitasun handia eta zabala izan zuten, Gipuzkoako gizartean eragin handia izaten zutelarik. Hauen sortetxetan dorre eta gartzelak zitzazten eta eleizak ere eraiki eta mantentzen zitzazten, horrela elizetako apetxak beraiek izendatu eta elizetako etekinak beraientzako izaten ziren.

Ahaide nagusiak erregearen aurrean beraien lehialtasuna adierazteko zin egiten zuten. Adibidez, 1475 urtean Gaztelako erregina zen Isabel Iari zintzotasuna adierazterea gortera ondorengoko Ahaide nagusiak hurbildu ziren: MARTIN RUIZ, OLASO, GARCIA, ALVAREZ ISASAGA, LAZKANO-ren izenekan JUAN LOPEZ, JUAN GARCIA de BALDA, BELTRAN de LOYOLA, JUAN BELTRAN de IRAETA, JUAN ORTIZ de ZARAUZ, FORTUÑO de ZARAUZ, LOPE GARCIA de GAVIRIA eta JUAN ORTIZ de ZARAUZ. Dendarik ez dago Aide Nagusiek Gipuzkoan eragin handia zutela eta beraien kastatik kampokoak menpekotasunez tratatzeten zitzeltela.

(6).- ERMANDADEAK

1375 urtean Tolosan ospatutako Batzar Nagusietan, Gipuzkoako Hirien Ermandadea sortzea erabaki zuten. Erman-dade honen helburu nagusia bideetako lapurketak geldiaraztea zen. Ahaide nagusien arteko gatazkan ibilitako mertzenario asko bide lapurretan saiatzen ziren, gelienetan Ahaide nagusien onespenarekin. Ermandade honek ez zuen luzaroan iraun, zatitu eta bere aktibitatea bertan behera gelditu baitzen.

1397 urteko uztailaren 6an, Enrique III.a Gaztelako Erregearren aginduz Getariako Salbatore elizako koruan, Gipuzkoako hirien Batzar Nagusia bildu zen. Batzar hau Gonzalo Moro korrejidoreak kudeatu zuen, eta berrío Ermandadea sortu zen. Gipuzkoako zazpi alkateren gidaritzapean lehen orrat-sak eman zituen. Alkate horiek onak eta zintzoak izateaz gainera, irakurri eta idazten ere jakin behar zuten eta buruzagitzan ezin zitekeen inolaz egon Ahaide nagusien aldekorik edo bandoen burrukan parte hartutakorik. Ermandadearen boterea ondoko bost zutabeetan oinarritzen zen:

- 1.- *Si alguno hurtare o robare a otro alguna cosa en camino o fuera de camino.*
- 2.- *Si alguno hiciere fuerza o forzare.*
- 3.- *Si alguno quebrantare o pusiere fuego a casas o mieses o viñas o manzanales o otros frutales de otros para los quemar; o los quemare.*
- 4.- *Si alguno cortare o talare árboles de llevar frutos o barquines de herrieta.*
- 5.- *Si alguno pusiere asechanzas para herir o matar; o feriere o matare. Aconteciendo las dichas cosas y casos en montes e yernios de esta provincia, fuera de las villas cercadas y entre no vecinos de un lugar y alcaldia, o de noche.*

Bestalde esan behar da, zenbaitzutan Ermandade hauck noiz behinkako isilpeko harremanak izaten zituztela batzuekin nabiz besteekin eta badirudi Ganboatarrekin harremanak hobeagoak zirela Oñaztarrekin baino.

(7).- SENTENCIA DEL CORREGIDOR DE GUIPÚZCOA, CRISTOBAL VÁZQUEZ DE ACUÑA.

San Sebastian, 24 de diciembre de 1520."Archivo de Simancas. Diversos de Castilla"Leg, 6 nº 110/6, folios 6 a 19

(8).- SENTENCIA ARBITRAL DEL DUQUE DE NAJERA SOBRE LAS DIFERENCIAS ENTRE LA JUNTA DE HERNANI Y LA JUNTA DE SAN SEBASTIAN ACERCA DEL RECIBIMIENTO DEL CORREGIDOR DE GUIPÚZCOA CRISTOBAL VÁZQUEZ DE ACUÑA.

Pamplona 12 de abril de 1521, "Archivo de. Simancas. Diversos de Castilla", Leg. 6, nº 111

(9).- MATEOS, F. (S.I.) LA ASCENDENCIA DE P. ANTCHIETA Y LA GUERRA DE LAS COMUNIDADES. Separata de " Missionalia Hispanica" (Páginas 5-52) Año XXIV—Nº 70—1967

(10).- LEON LOPETEGUI.-¿LOS ANTCHIETA ANTERIORES 1562, ERAN DE URRESTILLA O AZPEITIA? PLANTEAMIENTO EXACTO DEL ASUNTO Y SU SOLUCIÓN HISTÓRICA. Patronato de la Casa de Colón-Anuario de Estudios Atlánticos- Madrid- Las Palmas-1980 Nº 26.

(11).- SAN CRISTOVAL DE LA LAGUNA

XVI mendeko San Cristoval de la Laguna hiriaren eraketari buruzko zentzuita argibidek hobeto ulertazik ditzigu Anchietaren ibilerak. La Laguna hiria 1496ko uztailaren 25ean eraiki zen. Hiriaren garapena azkarra izan zen, denbora gutxian artxipielagoko lehen hiria baino eta 1531 urtean hiri titulua hartuz. Ditugun datuen arabera, badakigu 1531 urtean 5.513 biztanle zituela eta 1561 urtean, berriz, 7.220 biztanlectara irixten zela.

La Laguna hiriko zati zaharrena Santa Maria elizaren inguruan dago, alde horri Goiko Hiria deitura ematen diote. Auzo horretan eraikitako etxeak buztinezkoak ziren eta txilatuak lastozkoak. Biztanle berriak zetozten moduan beste gune bat sortu beharrean aurkitu ziren, eta horrela San Miguel edo Adelantado enparantza inguruan urbanizazio txukun bat eraiki zuten.

Gune horri Beheko Hiria deitura ematen zaio. Auzo horretan Erremedioko Amaren eliza 1515 urtean eraiki zen, eta 1522 urte inguruau domingotarrak bertan kokatu ziren Santo Domingo de la Concepción konbentuaren eraikitzeari ekinez.

Tenerife lurralteak egurra, ura, larreak eta garia egiteko lur egokiak izatea izan zitekeen arrazoia Juran garatze azkarrerako. Biztanlegoari dagokionez esan behar da berau leku desberdinatik etorritakoek osatzen zutela. Adibidez, jatorriz juduak zirenak La Laguna hartzetan babesleku-zat, bereiziki estatu espainoletik eta portugaldarretik bidali zituztenean. Bertan aurkitzen ziren juduak, batzuk girstino berriak, besteak sinesdunak... denek bizimodu adiskidetasunean egiten zuten. Bestalde, Amerika konkistatzeko pasabidea zen Tenerife eta bertatik ere antolatzetan ziren expedizioak. Garrantzi handia hartu zuen komunitatea portuguesa izan zen hauetako ofiziotako gizon-emakumeak ziren, nekazaritzan eta arrantzan ere moldatzen zirelarik. Inmigracio portuguesa Portugal lurralte osotik zetorren, Portugalen menpe zeuden ugarteak ahaztu gabe, hau da, Madeira eta Azoreak. Azken etorkin horiek erakutsi zuten kainaberaren lurgintza eta azukrearen industria. Beraz, zenbait lekutan eragin handia izan zuten. Gizarte nahasiak eta bata bestean-ganako errespetuak Tenerifeko bizikera orkatua izatea eragiten zuten.

(12).- COIMBRA

Coimbrako ikastetxea (Colegio Real das Artes) 1542an 12 ikaslerekin ireki zen eta lau urte beranduago ehun ikasle ari ziren bertan ikasketak egiten. Gaincrea, bera izan zen behar bezalako ikasketak eskaintzen zituen egoitza bakarra. Saso horretan Portugalen jesuitak gorakada handia izan zuten. Gorakada horretan bi arrazoi azpimarra daitezke. Bata Portugalgo Juan III.ak babes politiko eta ekonomikoa eskeintzen zielatik eta bestetik jesuiten nagusia zen Simón Rodriguezek, harreman onak zituela garaiko agintariekin eta batasun honek ematen zuen indarra Coimbrako Unibertsitatean nabaritzen zen. Portugalgo jesuiten nagusia nahiko polemikoa bihurtu zen, San Inazio Loiolakua ere bere desadostasuna zenbait eskutitzetan adierazi zuen bereiziki zenbait portaerarengatik, hala nola, batzuetan kaleetan zigortzen zituztela beren buruak, sermoiak ere kalean eskaintzen zituzten, beste zenbaitetan hilen gorpuak beraien gelatara eramatzen zituztelako heriotzari buruzko gogapenak egiteko.

(13).- ODOL GARBIKOAK

Espainian, juduen aurka gogor saiatzen ziren, giristino berri eta hauen ondorengo belaunaldikoak ere jarraitzen zituztelarik. Hau izan zen lagundi erlijioso garrantzitsuenek beraien mende zeuden ikastetxeetan aipatutako “zikindurak” zituzten ikaslerik ez onartzearen arrazoieta bat.

Gandiako dukeak, Francisco de Borja jaunak, Pablo III.ari diru laguntza eskatu zion, Gandian Unibertsitaterik ez zegoela eta bere menpeko ziren mai-ruen semeak heziketa giristino bat izan zezaten. Gainera, jesuitek eratuta, ikastetxea izatea nahi zuen asmo honek bere onespen erantzunak izan zituen San Inazio Loiolakua eta Pablo III.aren aldetik, azken honek Egoitza honi “Studio Generale” gradua eskeini zion. Gradu hau Unibertsitatearen parekoa zen.

Jesuiten ikastetxeek edo egoitzek sasoi hartan Kultura eta Erlilioan arrakasta handia zuten. 1544 urtean zazpi ikastetxe zeuden, honela banatuak: Paris, Lovaina, Kolonia, Padua, Alcala, Valentzia eta Coimbra; azkeneko hau izan ezik gaineko guztiak txikiak eta diru sarrera gutxikoak zirenez, aldakorrak gertatzen ziren.

Jesusen Konpainiako ikasketak sasoi hartan hiru alorretan banatzen ziren:

- 1.- Hizkuntza eta letren ikasketak (Humanitateak ere deituak)
- 2.- Filosofia alorra
- 3.- Teología alorra

(14).- BRASIL

Brasilen aurkikuntza, Pedro Alvarez Cabral itsazgizonak 1500eko apirila-ren 30ean egin zuen eta itsasgizon honekin joan zen A. Henrique de Coimbra franziskotarrak eman zuen lehen Meza Saindua.

Brasil, aurkitu ondorengo lehen urteetan deportatuen lurra bilakatu zen. Inkisizioak zigortutakoak, juduak, hereseak, hil-tzaileak eta abar luzeko pertsonalitateak iritsi ziren. Beste zebaitzuk lurralte honi etekin hobeago ateratzeko bideak aurkitu zituzten; adibidez, eguraren “Pau-Brasil” deiturarekin ezagu-tzen zena. Egur mota hau itsas-ertzeko zuhaitzetatik lortzen zuten, berc

erabilera ehungintza alorrean emanaz, arropei kolorea emateko. Aipatu, lurralte honetako Brasil izena egur honetatik hartzen duela.

Brasilgo kostaldeak iparraldetik hegoaldera distantzi oso handia du eta sasoi harten distantzi hau ez zen erraz egitekoak. Portugalgo erregeak 7 zatitan banatzea erabaki zuen, zati bakoi-tza Kapitania edo Probintzia izendatuz. Hau 1530 urtean izan zen eta 19 urte beranduago Portugalgo errege zen Juan IIIak batasun bat eman asmoz zazpi probintzi hauei, alor bakoitzak, politikoa nahiz erlijiosoa, agintaritza baten menpe egotea erabaki zuen: batasun politikoa emateko gobernadore bat izendatu zuen eta erlijio konturako batasunaren ardura, berriz, Jesusen Konpainiari eman zion. Tomé Souza generala izendatu zuten Brasilgo lehen gobernadorea eta honekin batera bidaiatu zuten 4 jesuiten buru zen A. Manuel de Nóbrega lehen probintziala. Jesuiten bigarren expedizioa, 4 jesuitek osatua 1550 urtean iritxi zen Brasilera.

(15).- BAHIA

Bahia garai harten Brasilgo hiriburua zen, bertan administrazio militarra, politikoa eta erlijiosoa zeudelarik. Bertako indiarra tupinanbak ziren. Bahia garai harten gaizki lerrotutako karrika gutxi batzuk zituen aldeia handi bat zen, etxolak lastoz eta buztinez egindakoak ziren, eliza eta eskoila bezala.

(16).- JUAN AZPILIKUETA

1545 urtean Coimbran, Jesusen Konpainian sartu zen. 1549 urtean ikasketak amaitu eta 59 eguneko bidaiaaren ondoren Brasilera iritxi zen. Brasilgo hainbat lekutan misiolaritza egin zuen, lan honetan bi egoitza altxatu zituen indiarra zituzten bizioteratik aldentzeko (gizajaletasun, sexu harremanak eta abar luzeko ohituretatik urrutiratu nahi zituen). 1555 urtean hil zen. Bigarren abizenez Navarro bezala ezagutzen da, baina “Navarro” deitura izengoitiari dagokio (garaiko idazleek diote Navarro deitzen ziotela portuges hizkuntza gaizki ahoskatzen zuelako euskararen eraginagatik).

Martin Azpilikueta izeneko bat ere ezagutzen da, izengoitziz “Navarro” deitura zuena eta irakasle garrantzitsua izan zena; 14 urte Salamancan pasa zituen “Derecho Canónico” egiten eta irakasten. 1538 urtean Coimbrara irakasle joan zen eta bertan jarraitu zuen 1552 urte arte, zeinetan jubilatu egin zen (Juan Azpilikueta bere iloba zen, San Frantzisko Jabierkoa zen beczala, eta Martinek berakin Coimbrara jesuita ikasketak egitera eraman zuen; garai har-

tan ikasketak 16-18 urterekin hasten zituztenez, pentsa daiteke 1527-1529 inguruan jaioko zela beharbada eta, beraz, hil zenean ez zituen hogeitahamar urre). Azkenean Errromara eraman zuten eta 1586 urtean bertan hil zen. 1493 urtean Nafarroako Barasoainen jaioa eta aita Iruritako Azpilikueta zen.

(17).- ALDEIA

Brasilgo indiarren bizikera sasoi hartan- nomada zen eta bizimodu hau ez zen jesuiten gustukoa, batetik indiarrek joan-etorrietai beste indiar jentilekin nahasiz kristautasun kutsua galtzen zuten, eta bestetik basoan hurruntzen zirenez jesuitei beraiei jarraitzea ezinezkoa gertatzen zitzaien, zailtasunak sortuz Jainkoaren dotrina erakusteko garaien. Arazo honi aurre egiteko, jesuitek "Aldeia" izeneko asentamentuak eraikitzen zitzuten. Aldeia hauetan bizi-kera biru alorretan banatzten zen:

1.- lana, 2.- errezuak, 3.- jolasketa edo atsedenaidia eta guzti hau presta-kuntza moral eta kulturalaren sostenguz, honela jesuitek Brasilgo indiarrei kristautasuna irakasten zieten.

(18).- GRAMATIKA

Anchietak idatzitako gramatika, 40 urtean zehar egindako orrazketen ondoren 1595 urtean Coimbran argitaratu zen. Ale bat Madrileko Biblioteca Nazionalean dago: "Arte de Grammatica da Lingua mais usadas na costa Brasil".

(19).- DE GESTIS MENDI DE SAA

Brasilen eta Ameriketan beharbada, latinez sortutako lehen poema epikoa da, 3.000 hexametroz osatutako poema da eta Anchietaren lan profano bakkarra. 1557ko abenduaren 2an Mendi de Saa gobernadore berria Brasilera iritxi zen. Bere arazo handienetako frantzesen aurkako burruak ziren, hauek urte askotan baitzebiltzan Brasilgo kostaldea menperatu nahian asendamentu ego-kiak aurkitu eta ondoren portugesak Brasildik bidal-tzeko. Guanabaran Coligny bezala ezagutua zen gaztelu militarra eraiki zuten. Gaspard de Coligny almiranteak (1519-1572) San Quintin babestokian, espanolen erasoen aurka burrukatu zuen, Coligny bera izan zelarik gatazkan heriotza aurkitu zuen lehen higanota.

1959 urtean Mendi de Saa gobernaria Bahian itsasoratuz bere gudari taldearekin hegoalderuntz abiatu zen, Ilheu, Porto Seguro eta Espíritu Santoko kapitani desberdinetan gndariz eta untziz bere gudari taldea hornitzen delarik. Gerla hau politikoa ez ezik erlijiosoa ere bazeen, frantzesek beraickin batera apez calvindarrak ekarri baitzitzuten; hori ezin zuten onartu eta Europan heresismoaren kontra bezala, Brasilen ere jesuitek gerla irekia hasi zuten. Beraiek eraikitako aldeietako indiarak armetan altxatu zitzuten eta bereziki indiar tupiminoak ziren hots Maracaíguacú eta Araribóia buruzagien gidaritzapean portugesen aldean burrukatu ziren. 1560 urtean portugesek indiar tupiminoen laguntzarekin frantsesak bentzitu zitzuten eta Coligny gazteln militarra deusestatu. Frantzesek hara eta hunat ihesi joan beharra izan zuten.

Gertakizun guzti hauek gure Anchiesta handiak “De Gestis intendi de Saa” 1563 urtean Coimbra argitaratu zen poeman isladatu zituen.

(20).- DE BEATA VIRGINIE DEI MATRE MARIA

Aurrez aipatu bezala, Portugesen garaipenak frantsesen sakabatzea ekarri zuen eta hauetako batzuk Brasilgo basoetara sartu ziren, bertan indiar tamoiokin topo eginez berauekin adiskide-tzea lortu zuten. Esan behar da frantsesen indiarrekiko portacra, askotan portugesena baino humanoagoa zela, azken hauek, indiarrei tratu txarragoa ematen zieten eta zenbaitetan esklabizatu ere egiten zitzuten, guzti horrengatik indiar haien elkarturik tamoioen Herri Batzarra sortu zuten. Batzar horretan tamoiok eta beste zenbait tribu tupizeuden. Egunen joan-etorrian indiar jentil hauek aldeietako indiak giristinoak maiz jazartzen zitzuten, São Paulo eta S. Vicente kapitaniak tarteko zirela.

Egoera honi irtenbidea aurkitzeko Mendi de Saa eta jesuitek indiar jentil hauekin pake ituna sinatzea ezinbestekoa dela uste zuten, erasoak eta frantsesen presentzia behin -betirako uxa-tzeko.

1563ko apirilaren 19an San Vicente kapitainiatik M.Nóbrega eta J. Anchiesta jesuitak eta Antonio Luis portugesa abiatu ziren indiarren eta portugesen arteko pakearen bila. Iperui bailaran tamoioen Herri Batzarreko buruzagiarekin maiatzaren 5ean topatu ziren. Indiar jentilekin hilabeteko harremana izan ondoren, M. Nóbrega S. Vicentera itzuli zen, Mendi de Saari pakearen baldintzak azaltzera. Indiarrek gibel heldur ziren, Nóbrega ez zela itzuliko uste baitzuten, horrela Anchiesta eta Antonio Luis beraiekin gelditzera behartu zitzuten, Anchietak berauen hizkuntza eta ohiturak ezagutzen zituelako.

Anchieta eta Antonioren gatibotasunaren lehen egunak sufrimenduzkoak izan ziren, alde guzietatik zirikatzen baitituzten indiatrek beraien ohitura lizunetan eror zitezen. Azke-nean, Antonio Luis beraien ohituretan sakrifika-tu zuten. Anchie-ta apaiza izanik alde guzietatik tentatzen zuten eta bekatuau eror ez zedin bere denbora librean hondartzara joanez, hondarrean Ama Birjinari bertso batzuk idazten zizkion ondoren memorizatzuz, ez baitzuen leku hartan ez paperik ez tintarik. Fede handia zuen, bazekien S. Vicentera itzuliko zela eta han memorizatutako bertsoak paperera pasako zituela. Iraillaren 5ean berriro Nóbrega itunarekin Iperuira itzuli zen, indiarrentzako armistizioa zeraman eta Tamoioen Herrien Batzarrak bakea onartu zuen. Sasoi hartan 29urte zituen Ancheta gizon gazteak inguru hartako hondartzak “De Beata Virgine dei Matre Maria” latinezko poema ederraren pergamiño bihurtu zituen.

(21).-GUAIXARÁ

Deabrua, tamoioen buruzagi izandakoa. Pertsonaia berezia izan zen eta gainera frantsesekin batera burrukatu zuen portuges eta indiar kristautuen aurka. Ainberé, demonioa hau ere, tamoioen buruzagietako bat izan zen eta Guaixaráren adiskide eta gerletako laguntzailea.

(22).- BEATIFIKAZIOA

Aita Jose Ancheta, Jainkoaren zerbitzariak misiolari bizitza osoan eta eguneko lanean kristau bertuteak goi mailara eraman zituen. Bere bizitza sainduarengatik, eleizako leku jakin batzueta (kasu honetan Brasil eta Kanarietako uharteetan) gurtzeko baimena ematen du Aita Sainduak beatifikazioaren bidez.

(23).- KANONIZAZIOA

Eliza Unibertsalean (cremurik gabea) edozein kristauk, gurtzeko, Sainduen erroldan egon behar du (kasu honetan Aita Jose Anchietak Erroman dagoen sainduen erroldan egon beharko luke) eta hau Elizak ematen duen gorengo erabakia da.

BIBLIOGRAFIA

- ANCHIETA (de José).- De Gestis Mendi de Saa EDIÇÕES LOYOLA- SÃO PAULO-1986
- ANCHIETA (de José).- Poemas Eucarísticos e outros EDIÇÕES LOYOLA- SÃO PAULO-1975
- ANCHIETA (de José).- Lírica Portuguesa e Tupi EDIÇÕES LOYOLA- SÃO PAULO-1984
- ANCHIETA (de José).- Lírica Espanhola EDIÇÕES LOYOLA- SÃO PAULO-1984
- AROCENA, (Ignacio).- Ofiáculos y Ganboinos C. IPAR E. GOMEZ.-PAMPLONA
- ARMANI, (Alberto).- Ciudad de Dios y ciudad del sol. FONDO DE CULTURA ECONÓMICA-1988 MEXICO.
- ALBURQUE, (Joel).- Teatro Anchieta UNIVERSIDAD FEDERAL DE PERNAMBUCO-1976.
- AULICINO, (Lygia Maria) " O Teatro Anchieta" REVISTA DE ESTUDOS E COMUNICAÇÕES -V.VIII N°22 (h.73)
- BASALENGUE, (Diego de).- Historia de la provincia de S. Nicolas de Tolentino de Michoacan.
- BURRO. (Ernest.).- La obra cartográfica de la provincia Mexicana de la Compañía de Jesus-1567-1967. J.PORRUA-MADRID 1967.
- BAREIRO, SAGUER (Rubén).- Aculturación y mestizaje en las misiones Jesuitas del Paraguay- PARIS. APORTES- 1969.
- BANDEIRA, (Manuel).- Noções de Historia das Literaturas COMPANHIA EDITORA NACIONAL-1942
- BEORLEGUI,(carlos).- "Don martin azpilcueta, un artífice de la modernidad"AYTO, DE BARASOAIN"-1992
- CARDOSO (Armando P.).-Teatro Anchieta EDIÇÕES LOYOLA- SÃO PAULO- 1977
- GONZALEZ (Francisco/ Edición de-Varios Autores) José Anchieta Vida y Obra EXCMO. AYTO. DE SAN CRISTOBAL DE LA LAGUNA-1988
- CARO, Baroja (Julio).-Introducción a la historia social y economía del Pueblo Vasco. ESTUDIOS VASCOS VI.
- CARRION, (Benjamín).- Los Jesuitas en el Ecuador. CASA DE LA CULTURA- QUITO.
- CASANI, (Joseph).- Historia de la Compañía de Jesus del nuevo Reino de Granada en la America. CARACAS, ACADEMIA NACIONAL DE LA HISTORIA.
- CARDIFF, (Guillermo).- Los Jesuitas 1540-1940. Su origen-su espíritu-su obra. BUENOS AIRES -1942.

- CARAYON, (Auguste).- Bibliographic Historique de la Compagnie de Jésus" SLAT-KINE REPRINTS" GENÈVE-1970 (H. 342)
- DECORME, (Gerarrd.).-La obra de los Jesuitas mexicanos durante la época colonial.1572-1767. P.PORRUA, MEXICO-1941.
- ELIAS, (Imanol).- Juan Ancheta.- COLECCION DOCUMENTO. C.A.P.
- ENRICH, (Fajardo).- Historia de la Compañía de Jesus en Chile. BARCELONA. F. ROSAL-1891.
- GALANTE DE SOUSA (J.).- O Teatro No Brasil Tomo I -INSTITUTO NACIONAL DO LIVRO- RIO DE JANEIRO-1960.
- GALANTE DE SOUSA, (J.).- O Teatro No Brasil Tomo II INSTITUTO NACIONAL DO LIVRO- RIO DE JANEIRO 1960.
- GUERRA (J. Carlos de).- Oficinos y Gauboinos. Algunos documentos inéditos referentes a la época de los bandos en el País Vasco (306) REVISTA INTERNACIONAL DE ESTUDIOS VASCOS T.XXVI.
- GURRUCHAGA (Ildefonso).- Notas sobre los parientes mayores. Treguas y composiciones de la casa de Loyola.
Documentos (481) REVISTA INTERNACIONAL DE ESTUDIOS VASCOS T.XXVI.
- HANISCH, (Walter).- Historia de la Compañía de Jesus en Chile 1593-1955. CUERNAVACA, MEXICO, CIDOC.
- MAGALDI, (Sabato).- Panorama Do Teatro SERVIÇO NACIONAL DE TEATRO Volumen IV.
- METHOL FERRÉ, (Alberto).- La conquista espiritual- MONTEVIDEO-1968
- KRAFT, (G.).-Campaña del Brasil Antecedentes coloniales. BUENOS AIRES T. I-II eta III
- MATEOS, (F.).- Historia general de la Compañía de Jesus en la provincia del Peru. MADRID C.S.I.C- 1950.
- MORALES, (Mello).- O Theatro Ancheta -ACHIVO DO DISTRITO FEDERAL RIO DE JANEIRO 1897.
- NIEREMBERG, A.- "Varones Ilustres de la Compañía de Jesus" 2^a EDICIÓN T.III
"Misiones de Filipinas, Mejico, Canada y Brasil. BILBAO. MENM- SAJERO DE CORAZON DE JESUS-1889.
- OLORIZ, (Hermilio de).- "Nueva Biografía del Doctor Navarro D. Martin de Azpilcueta" PAMPLONA- 1916 (Universidad de Navarra Biblioteca de Humanidades LB. 434.636 R.50.308- H.70-71)
- POLICARPO, GAZULLA. (Fr.).-Los primeros apostoles de America y la primera misa en el Tucuman. CORDOBA-1934.
- PIMENTEL (Edith) .- "O Diabo Gil Vicente a Ancheta" LETRAS N° 53 S. Paulo.- 1977

- PIMENTEL, (Edith).- O Natal entre o gentio-LETRAS N° 112 S.Paulo-1978
- PAIXAO, (Mucio Da) O Teatro No Brasil BRASILIA EDITORA- RIO DE JANEIRO.
- RESTREPO, (Daniel).- La Compañía de Jesus en Colombia. CORAZÓN DE JESUS- BOGOTA-1940.
- REY FAJARDO, (José).- Documentos relativos a la historia de la Compañía de Jesus en Venezuela.ACADEMIA NACIONAL DE HISTORIA.
- REY FAJARDO, (José).- Filosofos y Teologos Jesuitas en la Venezuela colonial. CARACAS. UNIVERSIDAD CATOLICA-1974.
- SANTA ANA, (Antonio).- Misión fronteriza: Apuntes historicos, sobre la misión fronteriza de S. Ignacio de Loyola.
- TISSERA, (Ramon).- De la civilización a la barbarie. PEÑA LILLO EDITOR BUENOS AIRES.
- VALLE LLANO, (Antonio).- La Compañía de Jesus en Santo Domingo durante el periodo Hispanico. CIUDAD DE TRUJILLO, SEMINARIO DE Sto. TOMAS-1950.
- VIEIRA,(Primo) "Sobre os Autos Ancheta" Coloquio N° 16 1973 (H.66-68)
- YRIZAR (Joaquin de) Etimología de Azcoitia y Azpeitia (563) REVISTA INTERNACIONAL DE ESTUDIOS VASCOS T.XXVI.

*Esker mila argibide asko eman didaten
ondoko hauei:*

- *Loiolako Santutegiko Aita Egillor*
- *Casa de las Americasko Ernesto Sierra*
- *Jose Joaquin Noain Irisarri*
- *Arantza Ugartetxea*
- *Imanol Garzia*
- *Aitor Basurto*



E U S K A L A N T Z E R K I T O P A K E T A K

A Z P E I T I A

ARGITARATU DITUEN LIBURUXKAK

- 1990 • ANTONIO MARIA LABAIEN eta EUSKAL ANTZERKIA.
- 1991 • TORIBIO ALZAGA heriotzaren 50. urtemuga.
- 1992 • LÉON LÉON.
• ANASTASIO ALBISU.
- 1993 • ON MANUEL LEKUONA ETA BERE TEATROA.
• ARKOTXA ANAIAK EUSKAL ANTZERKIAN.
- 1994 • KATALINA ELEIZEGI.
“GARBIÑE”
• EMAKUME EGILEAK EUSKAL ANTZERKIAN.
Maria Arizmendi/Janamari Malharri/Miren Arrizabalaga.
- 1995 • IÑAKI BEGIRISTAIN ALBISU (1922-1984).
Antzerkigilea.
- 1996 • XABIER LIZARDI (1896-1933).
Antzerkiak: Laño ta Izar.
Bi aizpak.
Ezkondu ezin ziteken mutilla.
- 1997 • PIARRES LARZABAL CARRERE.
OROITUZ.
• AITA JOSE ANCHIETA
(S.J.) Dohatsua.